KULISKA SORTA

47-48'garren zenbakia

KULISKA SORTA

GRAZIANO ANDUAGA

AITONAREN UZTA

Gezaltzako aitonaren kontakizun eta bertsoekin
Aita Luis Villasantek osaturiko
bilduma

Itxaropena Argitaldaria
ZARAUTZ'EN
1961

DEPOSITO LEGAL S. S. 717—1961
N.º REGISTRO 3.645—61

Impreso en los Talleres Tipográficos «ICHAROPENA» - F. U. - Zarauz

AURKIBIDEA

SARBIDE 11
I. Graziano Anduaga, Gezaltzako aitona... 11
II. Grazianoren kontakizunak eta bertsoak... 15
III. Arantzazuko euskera-modua... 20
IV. Arantzazuko baserriak... 22
V. Toki-izenak... 23
VI. Liburu au zergatik edo zertarako 33

Leenbiziko Partea

KONTAKIZUNAK

1. Baserrira ezkontzen diranen legea 37
2. Lapurreta polita 37
3. Gurasoekin zu nola, zure umeak zurekin ala 38
4. Antxuma-larruan 39
5. Ze gauza ona dan bata bestiaz! 39
6. Esaera zaarrak 40
7. Balizko esneakin ezin gosaldu 41
8. Nazioak kafan 41
9. Zegamako ikazkiña 41
10. Andragai-billa 42
11. Zegamako apaizaren eperrak 42
12. Atzeko izipua 43
13. Andrea urak eraman 44
14. Andre temosia 44
15. Gizona beti gizon, saskitik ere 45
16. Lenagoko bizimodua baserrian 46
17. Bakotxa 46
18. Ardi mutur-beltza 47
19. "Vizcaino tonto" 48
20. Ukuilluko usaia entzuten 48
21. Gure tontoa 49
22. Belarriondokoa 50
23. Belea egondako lekuan baiño obe 50
24. Artu zan pazientzia 51
25. Zerutar bat 52
26. Bi fraulero 53
27. Tiratzaille txarra 54
28. Gizona egaraz eta txoririk ez 55
29. Buetrea eta txepetxa 55
30. Karramarroa 56
31. Argi-txakurrak 56
32. Erbirik ikusi al dezu? 57
33. Aita Palazios 58
34. "Nemo sua sorte contentus" 59
35. "Hombre de kanpangin" 59
36. Elorrio ikusi 60
37. Kastigurik gogorrena 60
38. Dirua eta zoriona 61
39. Emen da, emen da 62

40. Naziorik aberatsena 63
41. Araozko auzoaren sorrera 64
42. Leen andregaiak nola aukeratzen ziran 64
43. Justuria asten zaneko 65
44. Gosea engañatzeko 66
45. Beorren adimentua 66
46. Errudia ta aapixua 67
47. Gurdi bat egur, txartelagatik 67
48. Jauna ta berori 68
49. Agurea eta trena 68
50. Baserriko eztaiak 69
51. Birtute teologalak 71
52. Munduaren zabala 71
53. Zapoa gerrikoan 71
54. Tabakoaren indarra 72
55. Ez gaozak lelokeriak entzuteko 73
56. Euskera Araban 74
57. Papa ta mama 75
58. Gure umea bizi izan balitza 75
59. Arabarren bizimodua 76
60. Jaungoikoari bialeku ematen 77
61. Jaungoikoaren ofizioa 77
62. Arantzazuko bide zaarrak. 79
63. Izarren izenak 80
64. Elizia, jausi adi! 80
65. Ondio bazaozak gizon ondrauak! 81
66. Andra Mari Martiko 81
67. Iñoren pekatuak ez konfesatu 82
68. Emakumiak konfesatzen nola denpora aśko bear duten 82
69. Katuari zintzarria jarri 83
70. Leen eta orain 83
71. Txakolin-dantza ta beste dantza batzuk 84
72. Ganadurik aberatsena 85
73. Lizunera erdi zintzilika 85
74. Elizako aulkia luzatzen 86
75. Tximinoak eta sonbrero-saltzaillea 87
76. Lurraren ibillera 88
77. Lenengo aeroplanoa 88
78. Lenengo bizikleta 89
79. Lenengo automobilla 89
80. Lengo umiai kantatzen zitzaiena 89
81. Atzenengo gaitza ez, beste danak 90
82. Sapiñua 92
83. Eiztarien gezurrak 93
84. Buetrea eta mutikoa 94
85. Oñatiko madura 94
86. Agure zaarrak, malo 95
87. Mikeleteak 95
88. Txanda pasatu 96
89. Uribarri-goia 96

90. Piñuak 96
91. Lengo argiak 97
92. Tximista-argia 97
93. Esaerak 98
94. Aizearen kolorea 98
95. Jose San Juan 99
96. Distrazioak otoitzean 100
97. Gaiztoakin batera onak zigortu 100
98. Esnedunak eta antzuak 101
99. Esaerak 102
100. Astoak eta txakurrak 103
101. Mojen arotza 104
102. Eztiagu morroi txarra ekarri 104
103. Artoa eta garia 105
104. Opari ona 106
105. Alpargatak, abarkak eta galtzak 106
106. Azkartza 107
107. Txerriak eta ardiak 107
108. 1888-ko elurtea 107

Bigarren Partea

BERTSO-SORTA

I. Egillearen berri emanaz... 111
II. Baserria eta kalea 114
III. Gizonaren bi zorrak 116
IV. Norteamerika eta Errusia 117
V. Mutil gazteen etorpidea 118
VI. Gauza beraren gaiñean 118
VII. Neska gazteen etorpidea 119
VIII. Bataio-ondoko andre-bazkaria 120
IX. Txerri baten iltzea Arantzazuko mendian 120
X. Baserriko ispillua 124
XI. "Goiz-Argi" baserritarren periodikuari 128
XII. Ardiak eta piñuak... 131
XIII. Gipuzkoarrak txapela galdu... 133
XIV. Prakak ondo zaindu 133
XV. Arantzazuko torreari 134
XVI. Zartzarako ajeak 135
XVII. Etxe askotan gertatzen dana 136
XVIII. Kaletarrei deia 137
XIX. Gezurrak 141
XX. Ezbear askoren sustraia 142
XXI. Gaurko munduaren etorpidea 142
XXII. Fraisku mutilzarrarenak 143
XXIII. Atsegiña ta atsekabea 149
XXIV. Oñatiko erriari 152



Arantzazu ta Oñati-inguruko Planua. Zaart
kamio berri batzuk egin dira, baiña Graz
jakiteko



ba da, 1918 urtean aterea. Geroztik trenbide eta
nok aipatzen dituen toki askotxo nun dauden
ezta txarra.

SARBIDE

Eskuan dezun liburua, sarrera-itz batzuen bearrean da, iñundik ere. Bertan datozten ipui, esaera, aspaldiko berri, kontakizun eta bertso, denak dute iturri berdiña: Graziano, Gezaltzako aitona, alegia. Bera da ba liburuaren benetazko egille, nik sekretario-moduan egin badiot ere. Denak izan dira bere ezpaiñetatik jaulki bezela artuak, eta alaxe agertzen dira. Egilleaz, bada, beronen liburuaz, Arantzazu inguruko alderdi onezaz berri zerbait emateari egoki ezezik, bearrezko ere derizkiot, liburuan datoztenak osatu eta pixka bat argitzeko.

I

GRAZIANO ANDUAGA, GEZALTZAKO AITONA

Graziano ezta guztiz ezezaguna euskal baratzatxoan. Makiña bat bertso egin izan ditu bere bizitza luzean.

Oetatik asko "Aránzazu" aldizkariaren orrietan arkitzen dira sakabanatuak, "Goiz-Argi"-n ere azaldu dira batzuk, kanta-paperetan ere bai zenbait, eta beste asko ditu sekula argitara gabeak.

Baserritar jator, nekazaritza beste ofiziorik eztu izan. Ona emen bere bizitzako xehetasun nagusiak:

Gezaltzako baserrian jaio zan, 1877 urtean. Bere aita Pedro Migel, ama berriz Josefa Ugarte, biak oñatiarrak. Uribarriko eskolan ibilli zan, artean ezpaitzan inguru ontan beste eskolarik. (Arantzazuko auzo-eskola geroxeago jarri zan, 1898-an). Gogoan dauka Grazianok bere maisu izandakoaren izena: Pedro Migel Galarraga. Urte asko egin zituan jaun onek Uribarriko auzoan eskola ematen. Fama aundia eskuratu zuan; Oñati eta Araoztik ere etortzen zitzaizkion. Umeentzako oso ona omen zan. "Lau erreglak, irakurri ta eskribidu ta Dotriñia ondo: ori zan gure eskolia", dio Grazianok. Oroitarri bat dago orain Uribarriko eskola-etxean maisu famatu onen omenez jarria.

Ogei urtera ezkero, soldadu joan bear, eta, ain zuzen, Cubako gerra orduantxe zegoan egoera larrian. Ara joan ezkero an ilko zala-ta, gurasoak, naiz ta pobreak izan, sei milla erreal bildu zituzten, eta oiek pagatuz libratu zan soldautzara joatetik.

Lau anai-arreba izan ziran guzira. Zaarrena, neska: Eusebia. Graziano, bigarrena. Domingo, irugarrena. Manuela, laugarrena. Domingo gazterik il zan, Eusebia geroxeago; orain sei bat urte, Manuela.

Udara batean ibilli zan Naparroan, baso-lanetan, ogeita iru urte zituanean: Etxarri-Aranaz ta Ultzaman. Arrezkero beti egon da etxean, baserriko lanean.

1905 urtean ezkondu zan Estefania Arregirekin. Arrola baserriko alaba zan au, Arantzazuko auzotarra beraz; orain dala bi urte illa da (12-X-1959). Seme-alaba auek izan dituzte: Pedro, Victoria ta Jose. Jose Amerikan dago, Venezuelan; Victoria Legazpian ezkondua, eta Pedro etxean.

Urte-mordoa —43 urte— egin du Grazianok goizero-goizero bere astoakin Gezaltzatik Arantzazura gure Kolejioko mutikoen gosarirako esnea karriatzen. Arantzazu auzo onetako alkate ere luzaroan izan da.

Orain, bere 83 urteekin, lanerako ezindua arkitzen da, batez ere bista asko laburtu zaiolako, eta geienetan sukalde-bazterrean egoten da. Gorputza abaildua, baiño burua argia ta azkarra du alere. "Zaartzaro au astuna da", milla aldiz entzun diot esaten. Beti izan da kontentagaitza ta erosta jo-zalea. Arrazoi aundirik gabe, dirudianez, adin ortarako osasun sendoa baitu. Bizitzako neke-lanak benetan zaildu diote gorputza.

Makiña bat bider joan natzaio azken urte auetan, jai edo ostegun arratsaldetan, berakin itz-aspertu bat egitera. Goseak egoten da beti munduko goraberen berri jakiteko: Eichmann dala, politika-kontuak dirala, gerra etorriko dan ez ote dan, Komunistak eta Norteamerika... milla berriketa egin ditugu bion artean. Begi zolia du Grazianok munduak daraman martxari antz emateko. Arritzekoa da nola baserritar batek, menditar

utsa izanik, ain urbildik eta ain interes aundirekin jarraitzen dizkien gaur eguneko internazional gertaerai, eta ori ez radiorik ez periodikurik ez zinerik entzuten edo ikusten eztuala. Radioa izan ba-dute etxean, baiña eztio sekula begitarte onik egin.

Baiña gure jardun oietan ezta dana izan Kruschev, Kennedy ta Fidel Castro aipatzea. Nere xedea zan batez ere Grazianori bere kontakizunen berri eskatzea. Bere bizitza luzean zear entzun, ikasi ta ikusi dituen gauzen, ipuien, esaeren ta olakoen kontu artzea. Eta ala, zetozen bezela, eskribitzen nituan...

Oiek dira ba gaur emen azaltzen diranak. Berak esan bezela artzen saiatu naiz eta naiko zintzo asmatu dedalakoan nago. Ortarako gutxi baitira gure Graziano bezin egokiak. Zu aurrean paperakin zaudela oartzen danean, ba-daki bere kontuak soseguz eta astiro esaten, eta ala ezertxo ere galdu gabe artu ditzakezu. Egia da orrela esandako kontakizunak berezkotasun eta bizitasun-aldetik nai ta naiez asko galtzen dutela, baiña berak esanak eta berak esan bezela artuak dirala, ori beintzat ezin uka diteke.

Egia da alaber, orrelako kezka gabe eta berez, iñungo trabarik gabe mintzatzen danean, askoz biziago eta jatorrago itzegiten duala. Zenbat aldiz egon natzaion txoratuta eta lilluratua, solasak berak zekarren bezela, bere-bere dituan komentarioak egin oi zituanean... Ura ernal iturria!... Orduan nere aldamenean magnetofon bat izan banu, oarkabean jarri ta dena beingoan arrapatutzeko... Baiña lumarekin aiek artzerik eztago. Zuk

itz bat artzen dezuneko, ark beste bost esan ditu, eta berriz esateko agintzen badiozu, eztizu len bezela esango, eta geienetan motelago... Beraz nik Grazianori entzun dizkiodan zatirik onenak eztaude emen, aiek galdu dira betiko, aizeak eraman ditu. Ala ere, puska murritz auek ere bereak dira, berak esan bezela artuak, eta mesede zerbait egin dezaketelakoan —batez ere erri-euskera zer-nolakoa dan jakiten lagunduko dutelakoan— argitara ematen ditut.

II

GRAZIANOREN KONTAKIZUNAK ETA BERTSOAK

Kontakizun auen gaiari, mamiari banagokio, denak dira, noski, gai ariñak, barnetasun gutxikoak: ipuiak, esaerak, leenagoko bizimoduaz berri jakingarri batzuk, ta olako.

Ipui oetatik asko albo-errietakoei ezartzen dizkio gure aitonak, batez ere zegamarrei. Zegama, erri txukun ta aurrera-zalea, Arantzazutik naiko gertu egiten da, mendiz joan ezkero. Aizkorriko arresi bildurgarria degu bitarteko. Lokarri maitagarriak izan ditu beti Zegamak Arantzazuko Ama Birjiñarekin. Urtero-urtero (Jainkoak daki noiztik) Pazko Maiatzeko igande arratsaldez etortzen dira (eta mendiz etorri ere) Zegamako erromesak Arantzazuko Amari maitasun zor au pagatzera. Leenago, Grazianok dionez, Arantzazu ta Oñatiko alde ontan

zegamar asko egoten zan morroi eta neskame; eta orregatik-edo ipui asko ibilli da zegamarrei buruz. Grazianoren iritziz, zegamarrak orain bizkortu dira, fabrika eta lantegi arroak jarri dituztenean, baiña leen pixka bat iñusenteak eta ezjakiñak omen ziran. Iritzi berberekoa zan auzo ontako beste agure bat ere, gure komentuko praille zaar batek kontatu zidanez. Agure ori joan omen zan bein Zegamara, an senide batzuekin egun batzuk pasatzera. Eta andik itzuli zanean, galdetu zioten prailleak: —Zer moduz Zegama-aldetik, ze jende-klase da angoa? Eta agureak erantzun au eman: —Jendea oso ona, baiña *ilustraziorik* bat e ez...

Araotz ere sarritxo aipatzen da kontu auetan. Oñatiko auzo aundi bat degu Araotz, Arantzazutik gertu dagoana. Uribarri ere berdin. Oñatitik Arantzazura bidean gora gatozela pasatzen da Uribarri au. Uribarriko etxe batekoa zan Errodrigo Baltzategiko, Arantzazuko Ama Birjiña arkitu zuan artzaia.

Araba eta arabarren kontuak ere maiz aipatzen dira gure bilduma onetan. Ezta arritzekoa. Gure auzoak muga —edo emen esaten dan bezela, surgu— egiten baitu Arabarekin, eta beti izan dira artu-emanak arabarren eta Oñatikoen artean.

Iraulketa gogorra, biraldakuntza arrigarria ezagutu izan du munduak gure gizaldian, guztiok dakigunez. Bizimoduak, oiturak, siñiskerak, guztiak artu izan dute astindu gogorra. Oraingo zaarrak beren gaztetako mundua erabat aldatua ikusten dute eta egungo erara ezin dira etsi. Beren girotik erauzita bezela aurkitzen dira.

Ori gure Grazianok biziro du ezagun. Oraingo berrikeriak eztiote batere pozik ematen. Oraingo oiturak bere ustez eztakarte ondore onik. Leen ere esan degu kontentagaitza dala berez, pesimista. Bere iritzian samurtasunak, diru ugaritzeak, nagitasuna ta alperkeria besterik eztakar. Diruak tontotu eta arrotu egiten omen du, eta ori gertatu omen zaio gaurko euskaldunari. Beste zintzotasun bat omen zegoan leen, oraingo aldean; fedea milla aldiz sendoagoa ta biziagoa, oiturak ere garbiagoak. Bizimoduak artu duan abiadura onek ez omen du azken onik ekarri bear. Fabrikai ere eztie kariño aundirik, ondotxo baitaki berak izan dirala lengo oiturak gaiñazpikatu dituztenak.

Ni ez naiz sartuko Grazianok dituan iritziak noraiño izan ditezken zuzenak neurtzera. Aitzingibel askoko auzia litzake. Baiña berak salatzen duan gaitz nabari bat ezin ukatuzkoa da, iñola ere: gaur baserriak mutilzarrez beteak daude, ezkontzak beranduegi egiten dira edo sekula egin gabe gelditzen dira. Mutillak aitzaki bezela jartzen dute oraingo neskak ez-tela baserrira ezkondu nai. Baiña Grazionaren ustez eztago or gaitz onen azken zioa: bere iritzian mutillak daukate errua, tabernako bidea artu dutelako: an tontotu egiten dira eta urteak diozjakie iñungo buruausterik artu nai eztutela, eta oartzen diraneko, beranduegi izan...

Emengo baserrietan leenago zer moduzko bizimodua egiten zan, orduko eskasia, oiturak eta abar: guzti orren gaiñean gauza franko arkituko da Grazianoren autu auetan, eta berri auek, nik uste, beti dira jakingarri,

batez ere gerorako. Leenbiziko automobilla, aeroplanoa ta abar agertu ziraneko kontuak ere sartu ditugu.

Iztun jatorra degu Graziano, ele giartsu ta ederrekoa. Eta ortaz gaiñera, bertsolaria. Au da bere sail autatua, berak maiteen duena. Bigarren partean sartu ditugu, ba, bere bertso batzuk (auek ere zuzen-zuzenean bere aotik jasoak). Ez eratu dituan guztiak, noski, baiña bai autatuenetakoak eta bere kezka nagusiekin zerikusi dutenak. Grazianoren izkuntza aberatsa eta tankera berezia agertzera emateko eztira gaizki etorriko.

Ipuien aztarnak edo iturriak billatzen ez naiz asiko. Zeutan preso egondako gizonarena ederki baiño ederkiago dago Kirikiñoren Abarretan kontatua "Zerutar bat" izenarekin, baiño nik eztet uste gure Grazianok Kirikiño irakurri duanik. Pidal y Mon-ek ere ba-du erderaz "El zapatero remendón" izendaturiko ipui bat, emen 38 gn. zenbakian azaltzen danarekin guztiz berdintsua. Etzan izango noski erdal idazle ortan irakurri zualako. Beste ipui bat (81 gna.), berberak esaten du "Baserritarra" izenarekin garai batean ateratzen zan periodikuan irakurri zuala.

Izan ere beti izan du Grazianok zaletasun aundia irakurtzeko; bere eskuetara irixten ziran bertso-paper ta olako ikasteko. Jesukristoren Pasioko Bertsoak, Aita Bazterretxeak XVIII gn. gizaldian agertutakoak, buruz dakizki. Oso-osorik eta ezertan uts egin gabe kantatzen ditu. "Aránzazu" aldizkarian ere agertu ziran bertso famatu auek 1925 urtean (114 or.) eta Grazianok ondo gogoan du ori; baiña errebista ontan zuzenketa

Graziano Anduaga,
Gezaltzako aitona



Gezaltzako baserria. Iru bizitza ditu. Ondoan, **Lizuna** deritzaion arkaitz zulatua.

askorekin agertu ziran. Zerbait garbitu eta obetu naiez gure gizaldiko batek (Aita Arrue berak ote?) eskua sartu zuan bertso beneragarri oietan; baiño Grazianok, naiz ta errebistako testu au ezagutu, bestea, zaarra, esaten du beti. Nik ikusi detanez, Grazianok esaten duen testua eta Urkijok Riev-en agertu zuana —XXII (1931), 211ss— geienetan bat datoz. Bi testuak, zaarra eta zuzendua, aurrean izanik zergatik Grazianok naiago du zaarra? Nik eztiot galdetu. Baiña biak elkarrekin bekaldetuz, gauza bat ikusten da argi: naiz ta erderatiko itz geiago izan, euskal kutsu geiago artzen zaiola zaarrari. Orregatik-edo, euskaldun erriaren senak eztitu onartzen zenbait euskaltzalek obetzeko kontuan sartu izan dituzten zuzenketa asko.

"Diszipuloak, beren Maisua
zutenean ala ikusi
bakar bakarrik bera utzi ta
juan zitzaizkan igesi..."

Au ta beste olako gertaera illunak kantatzean, berezko eraskiña jaulkitzen zaio itzetik ortzera: "Mutillak, orduan ere gizona argal, orain bezela..." Urtero-urtero, ostegun ta ostiral santu egunez, bertso oiek entzun bear izaten dizkiote etxekoak. Oiek kantatu gabe eztago egun santu oiek pasatzerik. Beerago jarri degu Grazianok bertso auekin erabiltzen duen doiñua.

Gaiñerakoan, kontakizun bakoitzaren tituluak geienetan —ez beti—, gerok jarriak dira; baita oarrak edo esplikazio moduan jarri ditugun notak ere.

III

ARANTZAZUKO EUSKERA-MODUA

Arantzazu-aldean erabiltzen dan euskera-moduaz ere oarkizunen bat zor diot irakurleari. Urbiako zelaietan egon oi diran artzaiak Goierriko gipuzkera jatorra egiten dute, artzai oiek ezpaitira emengoak. Idiazabal-Segura-Zegama ta Zerain: lau erri auek osatzen dute (Arabako beste batzuekin) Parzoneria, eta lau erri oietakoak izan oi dira Urbiako artzairik geienak. Oñatik berak eztu Parzonerian sartzerik. Baña udarako illabeteak pasatu ezkero, Urbian ezta artzairik gelditzen.

Arantzazu auzoko euskera-modua, berriz, bere muiñean bizkaiera dala argi ikusten da. Obeki esateko, Bizkaian egiten danarekin eta beiñola Araban egiten zanarekin du antzik geiena euskera onek. Oñati, Leinzko Baillara, Bergara eta Deba ibaiaren inguruko errietan gertatzen dan bezelaxe. Bizkaiera onek, ordea, ba-ditu bere berezitasunak. Gipuzkoan erabiltzen diran itz eta forma asko emen ere naiko sartuak arkitzen dira. Batez ere zerbait ikasiak diranak (gure bertsolaria bezela) beti dute joera pixka bat gipuzkerara.

Ona emen itz berezi batzuk: Itoia = ukuillu, sitza = zimaur, jarein = utzi, tantana = tanto, burtxirrinka = gurpil, legorpeia = aterpe, txitxiña = itokiña, itxungi = itzali, aitajaun = aitona, amandre = amona, ebakoitza = ostiral, bialeku = buruauste... Verbuan, berriz, "ezagutzen" edo "parkatzen" esan bearrean, "ezauketan",

"parkaketan" ta abar esaten dute; eta "parkatzeko" ordez, "parkaketako", "zainketako" ta abar. Aditz laguntzaillean objeto plurala eztute geienetan adierazten. Grazianoren kontakizun askotan ezagun da ori: "belarriak ebakiko dio" = "dizkio"-ren ordez.

Emengo izkeraz xehetasun geiago jakin nai duenak, ikusi dezazke Aita Kandido Izagirrek eta Aita Biktoriano Gandiagak Arantzazuko Euskal Biltzarrean egindako lanak ("Euskera"-n agertu ziran, 1956 urtean). Barandiaran-en Eusko Folkloreko orritxoetan ere atera izan da eredu bat baiño geiago. Ba-dakit, gaiñera, gure Aita Kandido Izagirre lanean dabillela aspalditxotik, emengo izkeraz monografia oso eta alde guziz gaia agortzeko modukoa prestatzen. Lan ori atera dediñean, bertan izango degu danok jakin-gosea nun asetu.

Liburu ontan azaltzen diran pusketak eztira bearbada izango ber-bertoko izkeraren ispillu onena. Emengo erriak esaten eztituan itz edo forma batzuk arkitzen badira, ori izango da geienetan Graziano beraren erruz, gipuzkerara jo nai izaten dualako (literario zeregiñetan, esan nai det); eta iñoiz, neri irristatu zaidalako ere izan diteke.

Gauza batean ipiñi det ajolarik aundiena: ots, joskeran. Itzak, alegia, berak kontatzen zituan ordena berberean jasotzen alegindu naiz. Euskal joskera dala ta eztala ba -dira auzi-mauziak gure artean. Oietan sartu gabe, nere eginbidea zan itzak erriko gizon jator batek josten zituan bezela ematea, eta alaxe egiten saiatu naiz.

IV

ARANTZAZUKO BASERRIAK

Oraindik urte asko eztala, Arantzazuko auzoak bazituen 30 baserritik gora, denak egutera jarriak, mendibitarteetan sakabanatuak. Ona emen baserrion izenak: Arrikutzak 3, Gezaltzak 3, Kortakogain 1, Aizkirrik 2, Albitxurik 3, Arenduik 2, San Juan Artiakoa 1, Kutulutsa (beste izenez Miñeruarena eta bai Mendi-etxebarri ere) 1, Errota 1, Azpilletak 2, Arrolak 2, Sorandietak 2, Beilotsak 2, Gomiztegi 1, Zapiarbe (leen Unaiñarena) 1, Zelaizabal (leen Peñakulo) 1, Milikua (leen Motxonena) 1, Goiko Venta 1, Sindika 1. Oetatik bi aspalditxotik daude ustuak: Albitxuriko bat eta Gomiztegi, alegia. Gomiztegiko etxea prailleak erosi zuten gero, granja moduan jartzeko. Azken urte auetan, berriz, beste bi ustu dira: San Juan Artiakoa eta Kutulutsa; eta oker ezpanago, beste zenbaitzuk ere kalera bidea artuta daukate. San Juan-go baserri ospetsua ustutzera zijoanean, "Egan"-en eman genduan beraren berri zerbait (Ikus "Egan", 1956, 3-4 zenbakia, 26 or.). Arantzazuko baserri auen xeetasun geiago jakin nai duanak (noizkoak diran ta abar), Anuario de Eusko Folklore XVI (1956) ikusi dezake. Antxe dago Aita J. I. Lasa-ren lan eder bat ortaz.

Gure Graziano Gezaltzako baserrietan bizi da, Arantzazuko komentutik iru bat kilometrora. Garai batean bere etxe-aurretik zijoan Arantzazuko bide nagusia (kal-

tzada zaarra), Arrikutzen gora zetorrena; Zapiarbeko baserria ere kaltzada orren aldamenean egiña dago.

Gezaltzako baserri auen atzean ba-da leize edo zulo ikaragarri bat, arkaitz gorrian idikia, *Lizuna* deitzen diotena. Ortik barrura sartzen da Arantzazuko erreka, gero andik iru-lau kilometrora berriz agertzeko. Ur-zarata danean, Gezaltzakoak esaten dute: *Sorgiñak puxeta joten lizunean* (=lixiba jotzen, alegia). Leenago, San Martiñen ermita bat ere ba omen zegoan baserri oien ondoan, eta gaur arte *elizoste* deitzen diote ura izan zan parajeari.

Grazianoren etxeak berreun urte-bete zituan 1957'gnean. Eta gertaera ori bear bezela gogoratu genuan bere garaian, "Aránzazu" aldizkarian ikusi diteken bezela (1957, 231-236 or.).

Azkenik, igaz telefonua ere jarri da Grazianoren baserrian, auzo-mintzategi bat alegia, inguruko etxe danen serbiziorako. (Ikusi "Aránzazu", 1961, 77 or.).

V

TOKI-IZENAK

Euskal lurra, guziok dakigunez, toki-izenez estaldua agiri da. Izen oetatik asko, bertako bizi-lagunek bakarrik ezagutzen dituzte, eta geienak sekula jaso gabeak dira. Orixe gertatzen da Arantzazun ere. Orain urte batzuk agertu nuan inguru ontako izen-parrasta bat: Nombres toponímicos de la región de Aloña y Katabera ("Aránzazu", 1955, 74-76 or.).

Ona emen beste izen-mordoa, Arantzazu eta Araotz-aldekoak. Izen oiek jasotzeagatik, 1961-ko Mayatzaren 18-an egun guziko joanaldi luzea egin genduan Aita Azkarate eta biok, Aizkirriko Ladislao Odriozola lagun genduala. Jaun au auzotarra degu, eta, berak zionez, "amaika ibillera txar" egiña da mendi auetan, eta ala badakizki ondo emengo lur-izenak.

Albitxuri Zabal deritzaion baserri-ostetik abiatu giñan. Oste oni Liña-pozueta esaten omen zaio. Gero an inguruan dauden egi eta parajeen izenak auek dira: Erlaitza, Luerre, Luerreko zabala, Suandilla-solueta, Bildotsola, Kukuzubi, Puxeta-joileku. Erreka-bikutz (bi errekak alkar jotzen duten lekua). Erdiko Silla, berriz, esaten zaio bi erreka oien artean gelditzen dan bizkar bakar bati.

Mikeleteak Estopa-Sakonen izan zuten etxerantza bidea artu genuen. Bide au trabesean dijoa eta San Juan Artiatik Arrikutzera, goitik beera datorren kaltzadakin bide-kurutz egiten du Egaraleku deitzen zaion tokian (San Juanen bizi ziranak Edaleku deitzen zioten toki oni beroni).

Gero Estopa edo Estapa-Sakonera alleatu giñan. An dago Mikelete-etxea, zearo desegiña. Etxe artako arri, teilla eta abar zeiñek eraman dituan galdetzen diot gure berri-emaleari. "Ba, ba-daki berorrek esaera —erantzuten dit irriz—: Askoren astoa, otsoak jan"...

Mendi-arruak maiz aipatzen dituala-ta, "arruak" zer ote diran galdetzen diot gero. "Arruak dira barruko sakonak, *huecos,* erantzuten dit berak. Gaztaiña-arbolak barrua utsik daukanean, gaztaiña-arrua deitzen diogu".

Mikelete-etxean Illarragorriko bidea artu genduan. Illarragorri deitzen dan paraje ontan asten da 13 kilometroko kanala. Bere bide guztian ura artuaz dijoa kanal ori. Arabako mendi-arruetatik jeixten diran amaika errekasto garbiren urak artzen ditu, eta azkenik Urruxula-gaiñeko arkaitzean bukatzen da. Illarragorritik, bada, makiña bat egi ta bizkar agiri dira; eta baita baserri bakar bat ere: Lurgorrieta (Araozkoa da berau). Ona emen paraje aien izenak: Gaztaiña-mintegi, Garbee (baso-sailla), Gaillurraa (tontorra), Garbitxategi (Lurgorrieta-ondoan dagoan garo-sailla), Belar, Arrantegi, Luela.

Aren-arrizko arrobi bat ere pasatu genduan: Txanton-Baldoren kanteria deitzen omen zaio. (Txanton-Baldo au Araozko argiña omen zan).

An nunbait kokatuak daude beste izen auek ere: Añabarra, Arriezkilleta, Tantei, Aldazkorta, Matxinkorta, Iturrita, Burgamendi, Mirubizkar, Usaakotxena.

Beti kanalaren ondotik joanaz, Iberdueroko linearen ariak pasatzen diran lekura alleatu giñan. Andik ikusten da "Neskien egixa" deritzaion parajea, Lurgorrietako baserritik Gernetako etxeetara bitartean. Izen orrek ba omen du bere argibidea: Neska bat Lugorrietan goruetan egon eta andik Gernetara omen zijoan gabaz, elurretan, eta bidean otsoak jan zuan.

Alderdi aietako beste izen batzuk: Gorostola, Maularko tontorra, Mariuntz, Argarai, Txirikilla-leku.

Azkenik Andarto mendira eldu giñan. Kare arrizko mendi zoragarria da Andarto, Araotzen gaiñean. An-

dartoko aitzetik Usaakotxenara aitz bakar bat dago: aitz onek izena du Gaztelu. Urrengo dago Iturrotz, Txaramelako aitza, eta zabal bat, Palanka-leku deritzaiona. Gero, berriz, Saiturri, Arabako mugan.

Andartoko aitzaren ondotik gora igoaz, Deguriako zelaietara jetxi giñan. Ardi-leku zoragarria da Deguria. Ango mendi altuenak Atain du izena. Gaiztateia da ango arru bat. Aitz-zulo ospetsu bat ere ba-dago: Olaburuetako koba, egundoko troskak dituena: izugarri aundia omen da.

Degurian, artzai-txabola batean bazkaldu eta arratsaldean Ugaztegiko baserrietatik pasatu giñan, Kurtzeberri mendi-parean. Baserri oiek erriz Aretxabaletakoak dira, elizaz Araozkoak.

Ona emen Araozko auzoak dituan alderdi edo etxepilloak: Aizkorbe, Uixarte, Jaunsoro, Ugaran, Madiña-zubita, Araotz-Urti, Madiña, Gerneta, Agerre, Lurgorrieta.

Santa Krutz ermitaren ondoan iru aitz zorrotz daude, Aretxabaleta partera begira: Iru Aizpe esaten zaie. Gero dator Orkaitzeta edo Orkatzategi, Urruxola-gaiñeko arkaitza. Araozta ere an nunbait dago kokatua.

Araotzera jetxi giñan gero.

Sandailli (ala deitzen diote araoztarrak) koba ospetsuaren ondotik igaro, eta Jaturabera. Jaturabetik Arantzazuko kamiora bitarteko espaldari, Leuzarzierra ta baita Eperregi ere esaten zaio. Jaturaben leinztarren bidea artu genduan: Arantzazura erromes datozenean

ekartzen duten bidea, alegia: Jaturabetik Arrikutzera, emendik Kortakogaiñera, eta andik... etxera.

* * *

Garagarrillaren 22-an, berriz beste joanaldi bat egin genduan. Oraingo ontan jasotako izenak, Arantzazu bertakoak dira. Komenturik asi eta egoalderakoak, Araba-alderakoak. Izen-biltze au egiteko, onen-onena zan Araba-mugako mendi-gaillurretara igotzea, andik agiri baitira ondoen emengo bazterrak. Ala egin genduan. Ladislao bide-lagun eta maisutzat arturik, gaiñez gain joan giñan, Urbiako sarreraraiño. Beti mendi-egal biak ikusiaz, Arabakoa eta Arantzazukoa. Bi ikuspegi zearo ezberdiñak. Alde batetik Arabako laua bere erri koskorrekin, bestetik Arantzazu-aldeko paraje malkartsua, dena arkaitz eta erreka-arru bildurgarriz josia.

San Juan Artiakoan ematen diogu asiera gure izen-biltzeari. Oraintsurarte baserri bat zan emen. Urte gutxi da ustu zala eta orain zearo dago desegiña ta itxurarik negargarrienean. Baserria baiño goraxeago dagoan launkadari San Juango zabala esaten zaio. Urrengo dator tontortxo bat: San Juan-buru du izena. Txabola bat dago bertan. Tontor ortatik Erreka Bikutz aldera dagoan egalari, Kortatxo esaten zaio.

Gorago oraindik dago San Juan Zaar: bertan eskorta batzuk daude ardiak gordetzeko, baiña orain bertan bera utziak. Aurrera jarraituaz, tontorrik altuenera irixten gera, Arabako mugan: Sikillaako gaiña du izena. Emen trintxera batzuk ikusten dira, luebakiak, azken

gerratean egindakoak. Dagoneko, txorien txio-txio pozgarria eldu zaigu belarrira. Arabako mendi danean txori-kantu asko entzuten da. Erderaz "alondras", emengo euskeraz, berriz illarra-txoriak dute izena txori oiek.

Araba-aldera begiak itzultzen ditugu: amaika errixka dira gure parean. Orra oien izenak saillean: Ozeta (Ozaeta), Ermua, Larrea, Aizpuru (Axpuru), Narbaja, Barria (moja-komentua), Arriola, Gordoa, Galarreta, Zalduendo, Ametza, Araya. Oiek baiño pixka bat urrutiago, mendixka baten ostean (eta orregatik eztira ikusten) daude Maturana, Gebara, Etura, Audikana, Dallo, Heredia, Soasu (Zuazo), Luzuriaga, Ordoñana, Meskia...

Sikillaako gaiñetik Gatzaga-aldera dagoan lenengo portuak, Katillu-iturri du izena: kaltzada-bide famatua pasatzen zan ortik. Sikillaako gaiña eta Gaboiñu-artean dagoan mendi-bitarteari, Zepolekueta deitzen zaio.

Urbia-alderantz abiatzen geralarik, Gaboiñu degu urrengo tontorra. Au da Arabako mendiek duten gaillurrik altuena. Gaboiñutik asi ta Kortakogaineraiño manda batean daude izen auek danak. Altaata (zabalunetxo bat), Gaboiñuko lepoa (eskortak daude bertan), Tronkolekueta (launkada bat, txabolatxo batekin), Kutulutsa (izen bereko baserriakin), Illarmuiño (Arenduiko baserriaren ondoan dagoan tontortxoa), Aizkirriko tontorra, eta Kortakogain.

Gaboiñutik Araba-aldera dauden egalei Aitzurdintza eta Azketa deitzen zaie. "*Urdiña* ze kolore-klaseri esaten diozute?", galdetzen diot gure irakasleari. "Urdiña da kolore *zuri naastua*", esaten dit berak. Izan ere, auxe

da ango aitz eta arrien kolorea. Bestela, klaseari bagagozkio, emen, Arabako mendietan, dana da aren-arria. Katabera, Urbia, Aizkorri ta oietan, berriz, kare-arria baizik ezta ikusten. Katabera-alde ortan ere ba-degu Arriurdin izena.

Atxuaingo basoa da Araba-aldean dagoan baso bat. Elorritako tontorra ere alde ortara dago.

Kutulutsa baiño gorago dago zelai bat, garbiuna bat, Arantzazutik oso ondo agiri dana: Zespalen Erria du izena. Andik goruntz urrengo dator Ormatxoko errekia. Gero Ipistiku basoko arrua (piñudi bat dago jarrita orain). Gero Sorgin-leku edo Sorgin-lekuko ur-saltua (iru edo lau erreka leku batera jotzen duten tokia). Gero Iturri Zaar (iturri on bat dago bertan, orain dana ixtingatuta). Eizierretako bajada da Gaboiñutik Urbia-aldera dagoan lenengo portua.

Kutulutsatik asi ta errekaz beste aldera (Urbia-aldera) toki-izen auek aurkitzen dira: Keixtuiko zabala, Keixtuiko pozuak (potoluak), Keixtui goikoa, Basozaar, Eizierretako gaiña (au da Gaboiñutik urrengo tontorra, Urbia aldera).

Gaillaur-gaiña, tontorra ez baiña portua da, Artazo tik gora dagoan portua; bertatik dijoan bidea oso ibillia izan da. Ona emen Gaillaur-gaiñetik asi ta Arantzazu-aldera saillean dauden toki-izenak: Artazo (launkada zoragarri bat, ardi-txabolakin), Gaillaur erdikoa (beste launkada bat, iturri batekin), Gaillaur bekoa, Arrola biko arkaitza, Sabixa (auzoko mutikoen futbol-lekua), Karobigain ta Aizpilgain (Azpilletako baserrien ondoan).

Arantzazutik Arrolako baserrietara goazela zubi bat pasatzen da: Iitaiko zubia. Zubi onetatik asi eta Araba-aldera izen auek datoz saillean: Aitz bakar, Okola (potolo bat da; orain piñudia ipiñita dago), Aitzabal (ainbeste jentil-ipuin dituan arkaitz-tontor lerdena), Kobauzta, Katarrateko aitza, Lopitzengo aitza, Lopitzengo zabala, Erregebaso (Beillotsa-aldera dago), Arantzadui (Araba-aldera), Txopelantei, Beillotsako egia, Beillotsegiko gaiña (au da Gaillaur-gaiñetik urrengo datorren tontorra, Urbia aldera goazela).

Gaillaur-gaiñetik Araba-aldera dagoan lenengo pagadiak Negura du izen. An bertan, Arabako lurretan sartua dago Larraingoitiko zabala ta Larraingoitiko kantera (arenarrizko arrobia), Lapur-koba (arabarrak Arboton deitzen diote; arkaitz aundi bat da; Artazotik Narbajara dijoan bidean dago), Atxionatzako gaiña, Atxionatzako lepoa, Atxionatzako bayonetia (piku zorrotz bat). Andik beera Sustar-gaiztueta (launkada bat), Txurikin-erreka (Beillotsa aldera), Albiztui (mendi-espaldia), Astalanteiko arrua.

Iturrigorritik Arabara dijoan bidean daude Beien Etzaalekua, Arriona deritzaion arkaitza, Gaztelu edo Gazteluaitz, Fraidebaso (Beillotsako baserritik gertu; piñu-mintegia dago bertan), Erbisaskon (potolua), Beillosteiko gaiña, Txantxiku baso, Zurkutz (au da portua, Arabako mugan; Iturrigorritik gora dijoan bidea bertatik pasatzen da).

Arantzadui izenak bide emanik, galdetzen diot gure berri emaleari ea zer alde edo diferentzi dagoan "aran-

tza" eta "elorri" itzen artean. "*Arantza* eta *elorri* bat dira, esaten dit berak. Baiña "arantza" danai esaten zaie; "elorri", berriz, arantza-klase bati, arantza zuriari, alegia. Arantza beltzari beti esaten zaio arantza. Irugarren klase bat ere ba-dago oraindik: asto-larrosa deitzen zaio (rosal silvestre). Inguru ontan geien ikusten diranak, elorriak dira. Arantzadui esaten zaion toki ortan ere elorriak dira nagusi, Aloña aldean ere berdin"...

Bazkaria Urkitzako iturri-ondoan artu genduan, Arabako lur-barruan, gure parean genuala Tetuango txabola zarra. Andik Urbia-aldera dagoan mendi egalari (Araba-aldekoari) deitzen zaio Egiluzko espaldia.

Beti Urbia-aldera goazela, urrengo dator Uuruko bajadia (Arantzazu-aldera). Arantzazuko ibaiak emen du asiera eta ortik du nunbait izen ori.

Gero eltzen gera Burdinkutz izeneko toki famatura. Laiñoa sartu zaigu eta zoritxarrez ezta bat ere bistarik ikusten. Bi mugarri daude. Bata lurrean etzanda, bestea zutik. Onek alde batean du O (Oñate), eta bestean gurutze aundi bat. "Emendik beera, esaten du gure Ladislaok, Arantzazu-aldera, lur narratua dago". Emen artzen da Erromesbideta deritzaion bide zaarra. Auxe omen da Arantzazuko erromesen "antigualeko bidea". Naparroatik, San Adrian aldetik eta Arabatik Arantzazura zetoztenak bide au artzen omen zuten.

Burdinkutzen parean Araba-aldera dagoan mendia da Ooldaitza. Arri-pilla aundia dago bertan. Esaera da jentillak abraillakin botatzen zituztela arriak andik Iturbeltzera (Iturbeltz ori Iturrigorri-ondoan dagoan parajea da).

Burdinkutzetik Urbiara-bitartean dagoan tarteari Petriñaitz deritzaio. Tarte ortan ba-dago aitz bakar bat, oso gogoangarria: Petriñaitzko aitz lokia esaten zaio. Araba-aldeko egalari, berriz, Malkorra deritzaio.

"Erromesbidetako bide famatu ori ibilli bear diagu, ezagutzeagatik", esan genduan. Eta esan ezezik, egin ere bai. Bide orrek Iturrigorrira darama, eta andik Arantzazura. Orain dala 20 urte, ikazkiñak-eta asko ibiltzen ziran bide ortan, baiña aspaldion erabat utzita dago, txillarrak erdi janda, eta nekez da ibiltzen.

Bide orretan zear abiatu giñan ba. Orra bidean gertatzen diran izenak: Erromesbidetako erdiko lepoa: emen beste bidetxior bat artzen da Zabalaizpeko bide zierrera dijoana; baiña guk ori artu gabe, beti aurrera jarraitu genduan, Iturrigorri-aldera.

Gero dator Asto-bizkar. Izen au, gure gidariak dionez, ezta auzokoa, Urbiako artzaiena baizik. Astoaren bizkar-itxura duelako-edo deitzen diote ola. Auzokoak Erromesbideta esanda ezagutzen dute; edo bestela, Erromesbidetako Korostaduixa, len gorosti asko egoten zalako. Tetuango erreka ere artzaien izena omen da; bertokoak Naparbaso deitzen diote.

Erreka edo errekasto asko pasatu genituan. Bat dator Uurutik, beste bat Naparbasotik, beste bat da Tetuan errekia, beste bat Txantxiku basokoa, bestea Zabalaizpetik datorrena, bestea Erromesbidetako lur narratutik, ta abar.

Gero dator Arbelgaizto: erreka igaro bear dan pasua. Arbel-arria dagoalako ta paso txarra dalako izango du deitura ori.

Iturrigorri-aldera dago beste izen-pilla au ere: Zabalen egia, Katenbide, Otsaarria, Elorrola, Asundui, Enaizpe, Iturbeltz, Garbileku, Aizpilaitza (Erroitegi-aldera), Urdanbideko aitza, Gazteluaitz, Erroitegiko aitza, Aketain...

Eta makiña bat izen batu ondoren eta antziñako erromesen bidea ikasi degulakoan, pozik etxeratu giñan.

VI

LIBURU AU ZERGATIK EDO ZERTARAKO

Gure euskaldun jendearekin artu-eman pixka bat izan duena laister oartzen da gauza batekin: euskera biziaren mardultasun ta giarra urrituaz dijoala gizalditik gizaldira. Zein betea ta aberatsa gure aitona-amonen izkera eta zein erkiña aien illobena! Aien izkuntzaren laurdenik ere ezta ondokoetara pasatu. Gaitz larria, noski, eta Ibarrek bere garaiean salatu zuan. Beste arrazoirik ezpagenu ere, berak eragin bear ginduzke gure aitona oiei entzuten eta oiengandik ikasten saiatu gaitezen, berak izan baitira euskaltasunaren iturria orain arte oso-osoan atxiki dutenak.

Baiña ba-degu besterik ere. Gizaldiz-gizaldiko etengabe gozo ura bortizkiro ebakia izan da gure egunotan. Oraingo zaarrak, iltzean, berekin daramazkigute illobira gizaldi asko ta askoren mamia ta giltza. Bizimodu bat, izkera-modu bat, milla oroigarri ta oituren berri,

dena amilduko da betiko utsaren baian, al diran puskak jasotzen saiatzen ezpagera.

Asmo onekin bildu ditut nik erriko izkeraren argazki uts-garbiak izan nai duten dokumento apal auek. Zerbait mesede egin dezaketelakoan ateratzen ditut kalera.

Grazianoren doiñuak jasotzen, Arantzazuko planua kopiatzen, argazkiak ateratzen ta abar lagundu didaten nere komentuko Aita-Anaiei eskerrik beroenak, batez ere Astigarraga, Urbieta, Ibarbia, Azurmendi, Martinez ta Ezkurdia Aitari.

Aita Luis Villasante, O. F. M.
Arantzazun, 1961-ko Garagarrillak 6, Ama Birjiña Arantzazukoa koroatua izan zaneko 75 gn. urte eta egunean

LEENBIZIKO PARTEA

KONTAKIZUNAK

1

BASERRIRA EZKONTZEN DIRANEN LEGEA

Baserritarrak jarrita zeukaten lege bat eren artean: etxeko seme mayorazgoak aita burrukatu bear zuen ezkontzeko. Aita geiago zan artean ezin zeikien ezkondu. Eta baserrira ezkondu bear zuen neskak, imiñan ankak sartuta, jaso bear zuen anega bat gari bizkarrera. Lege ori baserritarrak erentzako jarrita zeukaten seme-alabak fuertiak etorri ditezen, zegaitik seme-alaba makalak badatoz, lanerako eztira gauza.

2

LAPURRETA POLITA

Oñatiko jaun bateri etorri zitzaion bere auzoko gizon bat ontzako baten eske. Jaunak galdetu zion andreari: —Oni ontzakoa emango al diot? —Ematen ezpadiozu, oker geiago egingo digu-ta, obeago dezu ematea.

Eta ala eman zion. Gero gabean, oian zeudela, mendian zebillen bei baten orroia entzun zuen andreak atarian. Eta esan zion gizonari: —Gure mendiko bei gorritxoa atean dago orroaka. Gizonak erantzun zion: —Amets egingo zenduan. Mendiko beirik ezta orain etxera etorri. Andreak esan zion: —Begiratu zazu, bera da-ta. Gizonak jaiki ta zabaldu zion atea. Beia sartu zan gizon-gerriko bat buruan zuela. Kendu zion gerriko ori burutik. Orduan gerrikoan izaten zan diru-poltsa eta bi anillokin estutzen zan poltsa ori. Zabaldu zuen poltsa eta antxe berak arratsaldean emandako ontzakoa.

Zer gertatu zan? Gizon arek beia arrapatu zien eta gerrikoakin lotu zuen; baiña beiak iges egin zion gerriko ta guzti eta nausiari eraman zion berak emandako ontzakoa eta lapurraren gerrikoa.

3

GURASOEKIN ZU NOLA, ZURE UMEAK ZUREKIN ALA

Gizon bat zijoan aita bizkarrean artuta hospittalera eramatera. Eta kantzau zanean jetxi zuan orma baten gaiñera. Aitak orduan esaten dio semeari: —Bai, seme, nik ere nere aita hospittalera eruan nebanean ementxe deskantzau nentzuan. Eta urrengo ire txandea duk. Orduan seme ori konturatu zan eta esan zuan bere artean: —Gaizki ñabik, eruan daian aita atzera etxera

eta bizi dan arte ondo zaindu. Bestela neuk hospittalera bear dot eta.

Eta andik aurrera aita, bera baiño obeto zaindu eban.

4

ANTXUMA-LARRUAN

Urbiko artzaiak esaten dute Oñatiko mendietan beren ardiak sartzeko baimena antxuma-larruan eskribituta dagoela. Oñatikoak, berriz, pagatu bear izaten degu: ardi bakoitzak zazpi pezeta, beorrak larogeita amar pezeta, beiak irurogei pezeta. Parzoneriko (1) erri oiek batere ez, eta ori ala omen da antziñako konkordia antxuma-larruan eskribituta dagoelako. Arabako ganaduak ere libre dauka onera etortea, eta Oñatikoak Arabara joatea ez.

5

ZE GAUZA ONA DAN BATA BESTIAZ!

Nere amandreak esaten zuan bizi zirala senar-emazte batzuk kriadiakin. Eta edaten zuela bazkarian kurkubita bat ardo. (Kurkubita da kalabaza txiki bat). Eta

(1) **Parzoneria.** Urbiako zelaietan ganadua sartzea libre duten erriak osatzen dute Parzoneria. Alkartasuna edo olako zerbait adirazi nai du izen orrek.

pentsatu zuela ardorik ez edatea, karu zala-ta. Asi ziran ba bazkaltzen; eta gizonak, egarritu zanean, esan zuan: —Ze gauza ona dan bata bestiaz! Orduan andreak erantzun zuan: —Ba doiala neskia kalabaziaz. Neskiak, salto batean joanda, ekarri zuan ardoa. Eta gero esan zuen: —Obeko degu len bezela jarraitzea, egarriyak bizi gabe.

6

ESAERA ZAARRAK

Zer ikusi, ura ikasi. - Nola bizi, ala il. - Gurasoekin zu nola, zure umeak zurekin ala. - Iltzea, erregeak austen eztuen legea. - Egin on, ez jakin aren on. - Kulpadun, lotsadun. - Itz-ontzi, uts-ontzi. - Etsaiari bi kandelakin argi egin bear zaio. - Alferrak, bi lan. - Jokoa ezta errenta. - Jakiteko artzen, ikasi zazu ematen. - On-egiñak iñun eztu lotsik. - Loteriarik onena, lana. - Gezurrak alde laburrak ditu. - Enbidiosoa bere etsai osoa. - Urrutiko intxaurrak amalau, bertara joan eta lau. - San Bizente otza, neguaren biotza. - San Jurgi (1), artoak ereiteko goizegi. - San Markos, (1) artoak ereinda balegoz. - Apirilleko lorea, urrea baiño obea. - Mayatzeko lorea, utsa baiño obea. - Azia ezpada ereiten, landarea ezta sortzen. - Aberatsa, infernuko legatza. Pobria, zeruko gloria.

(1) San Jurgi, Apirillaren 23-an izaten da; San Markos, 25-ean. Beraz, bi santu oien tartean egun bakarra dago.

7

BALIZKO ESNEAKIN EZIN GOSALDU

Etxe batean, goizean gosaltzeko, etzeukaten ezer. Eta aurrak goseak. Amak auxe esan omen zien: Iriñik etxakonau, baiña esnia bagiñaukon, otalora-azpitik sartagiña ekarri eta aia egingo giñuken...

8

NAZIOAK KAFAN

Kafan egitea da ganaduen desafixua. Aurreko ankakin egiten dute desafixua. Ganadu ezezagunak juntatzen diranean, asten dira kafan. Gaur ezpada, biar edo etzi asiko dira burrukan. Orrela dabiltza gaur nazioak: Errusia ta Norteamerika. Seiñale txarra da ori. Alako batean etorri bear du gerriak.

9

ZEGAMAKO IKAZKIÑA

Ikazkin bat il zan Zegaman. Eta zeukan bi seme. Eta utzi zien kapotea eta igitaia. Seme batak zion beretzako zirala, eta besteak ere bai, eta asi ziran despitan. Azkenean esan zuten: —Goiko saletxeko Frantxisko Marikin (au ere gaixo zegoan) abisatuko diogu ia zeiñentzako diren.

Joan ziran Frantzisko Mari ori ikustera eta esan zioten: —I ez aiz ilko, baiño ilko baintza; i ez aiz zerura joango, baiña joango baintza; gure aita eztek an egongo, baiño ikusten baldin badek, esan bear diok abisatzeko kapotea eta igitaia ia zeiñentzako diren.

10

ANDRAGAI-BILLA

Oñatiko mutil bat joan zan Zegamako parrokuagana andragai billa, esanaz andragaia billatuko balio. Erantzun zion: —Garaian zatoz. Oraintxe daude ezkontzeko zortzi mutil ta bederatzi neska. Eta mutillak esan zion: —Ba aukeratu dezatela erak nai dituenak eta aiek uzten dutena artuko det nik. Eta ala ezkondu zan, eta atera zitzaion guztiz emazte ona. Baserriko jaun baten maizter bizi ziran eta nausiari beti on-egiñaz on-egiñaz, azkenean nausiak etxea erregalatu zien.

11

ZEGAMAKO APAIZAREN EPERRAK

Zegamako apaizak ango jaietarako bi eper arrapatu zituan, Arantzazuko praille sermoigilleak eta biak jateko. Neskamea ari zan eperrak prestatzen. Meza-orduan oni bere nobioa joan zitzaion. Eta esan zion: —¿Zer

daukan emen? —Bi eper, apaizak eta prailleak jateko. Mutillak esan zion: —Bat jan egin bear dinau. Ura jan zuten, eta esaten dio berriz: —Bestea ere jan egin bear dinau. Neska ori larritu zan: —Gero nik zer egingo diat ba? —Zeozer asmatuko den. Ori nai ezpaden ez aiz nerekin ezkonduko.

Ala jan zituen eper biak. Apaiza eta praillea bazkaltzera etorri ziranean, praillea eseri zan maian apaiza baiño leen. Eta neska orrek joanda esaten dio prailleari: —Jauna, gure apaizak dauka oitura txar bat. Kutxilloari ogia ebakitzeko eskuan zorrozketa ematen badio, bedorri belarriak ebakiko dio. Eta apaizak, neskak esan bezela, kutxilloari eragin zionean, prailleak jaiki eta atera zan. Andik gerotxuago neskak esaten dio apaizari: —Ene jauna, prailleak eper biak artu eta eskapatu dit. Ala apaiza atera zan praillea arrapatzera. Eta urrutitik deitzen zion: —Biak ezpada, bat eman zazu.

Apaizak eperrak eskatzen, eta besteak belarriak entenditzen. Iges egin zion praille orrek, eta neskatxa libratu zan bere pekatutik.

12

ATZEKO IZIPUA (1)

Irabazten daben dana gastatzen daben mutillak, astoa izateko atzeko izipua (buztana) bakarrik falta dau.

(1) **Izipua.** Izipua da igeltzeroak paretak zuritzeko erabiltzen duten eskobilla (brocha).

13

ANDREA URAK ERAMAN

Bi andra ari ziran lexiba jotzen errekan. Bataren senarra erropa karriatzen zebillen. Ur-bolara etorri zan eta gizon orren andrea urak eraman. Beste andreak deitu zion gizon orri: —Atoz azkar, zure andrea urek eraman du. Gizonak esaten dio: —Arraioa, ori ere badinau? Bota zuan saskia eta bete zuan pipa tabakoz eta su emanda abiatu zan erreka bazterrak gora. An billatu zuan bere lagun bat eta esaten dio: —Nora oa emendik gora? —Andre-billa, mutil. Urak eraman ziak, or beian lexiba jotzen ari zala. —Eta urak andik eraman eta gora oa billa? —Bai, goitik izango dek. Nik ezagutu nuan ezkero, neri etziak sekula obeditu ta, errekan ere gora joana izango dek.

14

ANDRE TEMOSIA

Andre-gizon batzuk paseora joan ziran eta billatu zuten arbola bat ebaki-berria. Gizonak esaten du: —Karanba, au ebaki duen aizkora, zorrotza zan. Andreak erantzun zion: —Ori guraizeakin ebakita dago, ez aizkorakin. Esaten dio gizonak: —Zer esan dezu? Gurai-

zeakin ezta arbolarik ebakitzen. —Ba nik ori esan det eta esango det. —Ba berriz esaten badezu, artu ta itxasora botako zaut. Eta ala artu bizkarrean eta bota zuan itxasora, eta itotzen zegoan orduan atera eskuak gora eta beatzakin guraizeena egiten ito zan.

15

GIZONA BETI GIZON, SASKITIK ERE

Bermioko andra matraka batek zeukan gizona gaixo edo makaldua. Eta esaten zion: —E, zu etzera gizona. Alakon batian artu saskian eta itxasora botako zaitut.

Goiz batean txikito bat pattar edan eta andra orrek sardiña-saskia jarri zion mai-gañian eta esan zion gizonari: —Zu, jarri emen. Gizon ori jarri zan saskian, andreak artu buruan eta ba-zijoan itxasora botatzera. Bidean irtetzen dio txakur aundi batek berari mantaletik eltzera. Larritu zan andre ori, esanaz: —Galdua naiz, txakur onek jan bear nau. Gizonak atera zuan orduan burua saskitik albora, esanaz: —Txakurra! Joan adi ortik! Zakurrak iges egin zuan arrastaka. Andrea orduan konturatu zan eta esan zuan: —Jaunak, gizona gizon dek saskian ere. Ni onexek salbatu nau.

Buelta emanda eraman zuan gizona etxera, esanaz: —Emendik aurrera orain arte baiño obeto zainduko zaut.

16

LENAGOKO BIZIMODUA BASERRIAN

Gure gazte-denboran gariak anegako berrogeitamar errial balio zuan. Orduan baserrian ogia jaten zan oso gutxi, artoa zintzo. Eta baratxuri zopak ere egiten ziran artoakin: ogia pixka-pixka bat bota, seitik bat ogia, bost artoa. Eta sartaiñan urdai pixka bat erre, aren koipea bota zopiari eta kazuakin naastu zopia koipeakin eta ori izaten zan janaririk onena gosaltzeko. Esnea ere gutxi izaten zan; nola belar-zelairik artean etzan eta pentsurik erosteko dirurik ez, lastoak eztauka esnerik eta ala, esne gutxi izaten zan. Gaztaiña biltzen asi eta gastatu arte, gastaiñakin afaria. Eta eguardian berriz baba ligorrak. Orduan txerririk ere etzan ondo loditzen. Urdaia ere zimurra, eta babak urdai atal batekin latz egosita. Ori zan orduko alimentua. Ardorik ere etzan edaten. Auzoko jaietan, eguerritan-eta: orduan pixka bat.

Orduko jazkerak eunezko prakak eta eunezko jipoia (txaketa). Orduko jazkerak egiten ziran liñuakin etxean: alkandorak eta kamisak eta oeko izarak eta danak.

17

BAKOTXA

Zegaman zegoan mutil bat mezatara joaten etzana. Eta apaizak egun batean esan zien arratsaldean egingo

zuala sermoi bat eta danak joateko. Mutil orrek zeukan goitizena Bakotxa. Izen orrekin deitzen zioten danak. Eta ura ere joan zan sermoira, talo bat kolkoan artuta. Apaiza sermoian bere kontuak esaten ari zala, beste gauzen artean esan zuan: —Bakotxak berak daki bere barrengo berri. Eta mutil orrek artu zuan beratzako izango zala itz ori. Atera zuan kolkotik taloa eta botazion apaizari pulpitora esanaz: —Oni ere igerri diok? Autso (=toma) ta jan zak nai badek. Ni ez nauk berriz elizara etorriko-ta.

18

ARDI MUTUR-BELTZA

Arantzazuko Arrolan ba-zan gizon bat gorra, Miel Anton zeukan izena. Ardiak kontatzen etzekian, baiña bat falta bazan, bereala konturatzen zan zein zan. Egun batean Arantzazun meza entzunda, elizatik irteeran Guardianak esaten dio: —Miel Anton, etorri gaur komentura bazkaltzera. —Etxeukat beste lanik bazkaldu baiño. Egun bi oietan ardi mutur-beltza faltata.... Ta Guardianari iges egin zion.

Gero Guardian orrek egun batean pulpitutik auxe esan zuen: —Leen, Bianeventuraduak asko ziran munduan, baiña orain gutxitu egin dira. Bat orixe, Arrolako gorra...

19

"VIZCAINO TONTO"

Naparroan iru mutil zebiltzan alkarrekin lanean. Bat bizkaitarra, bestea arabarra eta bestea Baztangoa. Egun batean joan ziran meriendatzera ostatu batera. Eta eskatu zuen bixigu bat erreta ekartzeko. Ekarri zieten bixigu ori. Bizkaitarrari esaten zioten "vizcaino tonto". Eta agindu zioten: —Au partitu zak irurontzako. Artu zuan kutxillua eta ebaki burua ta buztana. Burua bota zion arabarrari, esanaz: —Alavés, toma la cabez. Eta besteari bota zion buztana, esanaz: —Baztan, toma la buztán. Artu zuan bestea beretzat, esanaz: —Vizcaino tonto, come erdiko tronco...

20

UKUILLUKO USAIA ENTZUTEN

Nere amona Oñatiko Altzibarren bizi zala, Oñatiko señorita batzuk joaten zitzaizkion batzutan eta amonari esaten zioten: —Utziko al diguzu leiotik ukuilluko usaia entzuten? —Bai pozik ere. Eta ala egoten ziran leioan, ukuilluko usaia entzuten, osasungarria zala ta. Eta noizean bein eramaten zioten libra bat txokolate mesede orren ordez.

21

GURE TONTOA

Iru euskaldun zebiltzan Naparroan ikazgintzan. Eta batari deitzen zioten "gure tontoa", gizajoa zalako. Jaiegunetan, txabola zaitzen-eta, ura eukitzen zuten. Besteak tabernara joaten ziran. Eta esaten zieten ango neskiari: — Egun batean ekarriko dinau gure tontoa, zuek naiko parre egiteko. Eta ala eraman zuten tonto ori jai batean.

Esan zioten tabernako neskiari: —Ekarri zazute arrautza bat berotuta, ia zeiñek obeto asmatzen degun norentzako izan. Ala jarri zien arrautza ori muturra zabalduta. Batek bota zion gatz pixkatxo bat, esanaz: —Salis sapientiae. Bigarrenak bota zion piper pixka bat, palilluakin jira eman eta esanaz: —Pimentorum rebotatis. Eta tonto ori an zegoan ixil, maira begira. Eta esan zioten bere lagunak: —Tira tonto, i beti tonto. Eta neskiak eman zion arrautza ori eskura: —Ia zuk oiek baiño obeto asmatzen dezun. Tonto orrek artu zuan arrautza. Eta eskuakin gurutze egiñaz: —Pax vobis, consumitrix, eta zurruta batean edan zuan.

Orduan esan zieten neskak mutillai: —A ja ja, au daukazue tontotzat? Zuek zerate tontoak. Au zuek baiño listoago dek.

Eta orduan neskak naiko parre egin zuen, baiña ez mutillak uste zuen aldera.

22

BELARRIONDOKOA

Naparroan almohadari esaten diote belarriondokoa. Len Oñatitik teillagiñak joaten ziran asko Naparroara. Eta an mutil gazte bat gaixotu zan. Eta zegoan tabernan, oian.

Etxekoandreak esaten dio mutillari: —Belarri ondoko bat ala bi nai dituzu? —Bat ez, bat ez, erantzun zion mutillak. Eta orduan kendu zion almohada eta gelditu zan buruz bera. Gero joan zan mutillaren nausia ikustera. Ta esan zion mutillak: —Almohada kendu dit.

Joan zan etxekoandreagana nausi ori eta esan zion: —Zela utzi dezu mutilla almohada kenduta? —Esan diot bat ala bi nai dituan eta batere bear eztuala esan dit eta...

23

BELEA EGONDAKO LEKUAN BAIÑO OBE

Zegaman bi mutil koskor ibiltzen ziran ardi zaintzen egun guztian. Eta bazkaltzeko ematen zieten arto puska bana. Eguerdian artoa jaten ari zirala, ikusi zuen bela zaar bat olasi baten gaiñean kantari. Batek esan zion besteari: —Belea dagoen tokian ukituta artoa jango diagu.

Eta belea joan zan igesi. Eta ura egondako tokian ukitu-ta artoa jaten zuen, esanaz: —Gozoago zeok! aragiaren kutsua zeok emen!

Gero etxera joan ziranean batek esan zion amonari: —Guk gaur egin degu bazkarie! Belea kantuan egondako lekuan ukituta artoa jan degu. Asko gozoago zegoan.

Amonak erantzun zion: —Ene ume! pekatu larria egin dezue, gaur bijili-eguna dek eta. Jaian konfesatu egin bear dek...

Ortik sortu zan lenagoko esaera bat. Mutillak sartaiñan artoa busti ta jaten zuenean, koipe gutxi bazan, amari esaten zioten: —Ama, emen eztago koiperik. —Bai, oraindio belea egondako lekuan baiño obe dek or.

24

ARTU ZAN PAZIENTZIA

Mutilzar bat omen zegoan Zegaman Ameriketatik etorrita. Goitizena deitzen zioten Pazientzia. Oso aberatsa zan.

Alboko etxean il zan gizon gazte bat. Eta onen andrea negarrez urtutzen zegoan, esanaz etzuala geiago bizi nai, berak ere il naiago zuala bizi baiño. Eta bere amak esan zion:

—Ez adi orrenbeste estutu, artu zan ba sikieran pazientzia...

Eta arek amerikano zaarra entenditu. Eta parrez erantzun zion amari:

—Eta, ama, naiko ote du gero?...
Orduan igortzi zituan begietako negarrak.

25

ZERUTAR BAT

Mutil bat, Patxi zeritzana, lapurretan arrapatatuta lau urteko bialdu zuten Zeutara. Bere urrengo etxeko Mari Iñasi ezkondu zan beste erri batera Antonekin. Anton ori gazterik il zan. Eta gero ezkondu zan Praiskukin.

Patxi ori Zeutatik etorrita zegoan eta Mari Iñasiren errian jaiak ziran eta joan zan Patxi arutza. Mari Iñasik, ikusi zuanean, joan zitzaion esanaz; —Ene, Patxi, zeruetatik etorri egin aiz? —Bai, ni etorri naun. —Eta gure Anton ikusi dok? A be an dok ba! —Bai, an xabin. —Zela xabik? —Bestela ondo, baiña jazteko erroparik etxekon. —Nik emongo neuskio ba Praiskuren trajie. Eroango euskio? —Bai, emoten baustan bai.

Ala traje ori emon eutsan eta artu besartean eta bere errira bidean joan zan. Bereala etorri zan Praisku, eta andreak esan zion: —Antonen kontuak jakin ditut. Gure besteko Patxi zeruetatik etorrita emen egon da. Esan diot Anton ikusi daben eta zela dabillen. Bestela ondo, baiña jazteko erroparik eztaukola. Eta nik zeure trajie eman diot.

—Arraio demonioa, nire trajia emon? Aspaldi joan zan? —Ez, ondio ezta urrin izango. Atara itoatik zal-

dia eta Praisku ori joan zan arrapatzera. Eta urreratu zanean deadar egin zion: —Patxi, ia traje ori or itxi. Eta txara illuna zegoan kamiñu baztarrean. Bere traje ta guzti sartu zan Patxi txarara, eta Praixkuk lotu zaldia arbola bateri, ta sartu zan Patxi arrapatzera. Baiña arek zirku eginda urten zuan Praiskuk baiño len. Ta igo zaldiari ta bere traje ta guzti iges egin zion.

Praiskuk orduan esan zuan: —Nik bota diat botatzekoa. Len trajia ta orain zaldixa, orrek egin xuak gure etxeko aldixa.

Joan zan etxera, ta andreak esan zion: —Arrapatu dezu?

—Bai —Ta zer egin diozu ba?

—Ba trajia aguro eramateko zaldixa ere berari eman diot.

—Gizajua, zu portau zera. Atoz ona meriendaitzera. Emendik aurrera orain baiño maiteago izango zaitut.

26

BI FRAULERO

Bi fraulero (gezurti) bildu ziran taberna batean. Batek esan zion: —Nik ikusi zuat ona! Irureun aari aza baten azpian bixaotan (1), danak keizpetan eta bata bestiari etxain ikuketan.

(1) Bixaotan=eguerdi-osteko loa edo deskantsua egiten. Bixao=siesta. Itz onen gaiñean ikusi diteke Aita Uriartek Bonaparte Prinzipeari diona: 50 gn. eskutitza. Boletín de Amigos del País X (1954), 231 ss.

Besteak esan zion: —Nik ori baiño aundiagoa ikusi zuat.

—Zer ba?

—Lareun gizon kaldara bat egiten. Eta alkarren zaratarik etxuain entzuten. —Ta kaldara ori zertako zuan ba?

—Ik ikusitako azia egosteko izango zuan...

27

TIRATZAILLE TXARRA

Oñatin ba omen zan eiztari bat tiratzaille txarra, eta erbirik etzuan iltzen eta beste eiztariek burla egiten zioten. Egun batean bazoian mendira eta billatu zuan mutil bat erbia bizirik zekarrena.

—Ator ona, mutil, gaur xaukat suertia. Eutsi ik, ankatik lotuko xau sokia eta arbolatik esegi eta ilko xuat. Iri pagauko ostak balixo doblie. Etorri puxka bat onutz. Emendik tiratuko xaut tiroa.

Ala, arbolatik zinzilik zegoala, tiratu zion ta tiroakin ebaki sokia ta erbia zapla! lurrera, ta len baiño bizkorrago joan zan mendixa gora. Gizon ori buruari eldu-ta: —Orain bota diat ona! Autso, mutil, dirua, baiña ezeiok iñori esan.

Baiña danak jakin zioten, eta gero len baiño burla geiago egiten zioten.

28

GIZONA EGARAZ ETA TXORIRIK EZ

Atxuiko aitzean (1) eta inguruan orain irurogei urte eper asko izaten zan. Goizean, jaikitzen giñanean, lenengo diana, eper-kantua. Dozena-erdi bat banda kantari: tu-tu-tu, tu-rru, tu, tu-tu-rr... dana eper-kantua. Orain eztago buztanik pe.

Orduan txoria bazan ugari. Orain bakarren bat. Danak gastau dira. Nik uste dot gizona egaraz asi danean, lotsatu ta ezkutau dirala.

29

BUETREA ETA TXEPETXA

Buetreak esan zion txepetxari:

—Ik daukak egotzarrak! I lañoak baiño gorago be joango intzake.

Txepetxak erantzun zion: —Gura dok aposte zein gorago joan?

Ala gertatu ziran, eta buetreak esan zion txepetxari: —Ik urten aurretik. Ta txepetxa poliki-poliki buetrearen egoko luma baten gaiñean jarri zan, eta besteak etzion igarri. Buetre ori joan da joan da joan. Kantzau zanean, esan zion: —Nun aiz ba? Txepetxak gora sal-

(1) **Atxuiko aitza.** Gezaltzako baserriak aurrez-aurre daukaten aitz aundi bat da, Aloña-aldera.

to eginda esan zion: —Ni bañoiak. Oraingo kantzau aiz? Jarraitu, gura badok.

Buetreak esan zion: —Naikoa diagu, irabazi dok apostie.

Txepetxak esan zion: —Txikiari burla egiten berriz ez adi asi. Jaungoikoak guri ere laguntzen ziguk, iri bezelaxe. Aor ire aunditasuna ze txiki gelditu dan.

30

KARRAMARROA

Nere aitonak ni mutiko nintzala kontautakoa: Karramarro (kakalardo) bat etorren Arabatik Oñatira. Kantzau zanean, arbola baten gaiñean gelditu zan Araba-mendian. Ankak pegau xakon arbolan eta jaiki zan indartsu, atara eban arbolia sustarretik, eta emen jende dana billurtuta parian pasau zanean ze ete zan. Eta Bizkai aldera ezkutau omen zan.

31

ARGI-TXAKURRAK

Gure amandrea Altzibarko alaba zan. Altzibarren bizi zan denporan gau askotan argi batzuk urteten omen zuten Jaunmendi (1) aldean eta Azkontei aldean (Az-

(1) **Jaunmendi.** Oñati-inguruko mendi bat. Oñatiko Kondeak bertan zeukan jarrita urkamendia.

kontei baserri bat da). Esaten zuten argi-txakurrak zirala. Gizon batzuk joaten omen ziran ikustera eta etzuten ezer topatzen. Aiek joate orduko aldatu egiten zirala beste leku batera eta etzuten sekula txakurrik arrapatzen. Aotik sua botatzen zuten txakurrak omen ziran.

32

ERBIRIK IKUSI AL DEZU?

Eibarren gertatu omen zan au. Mendi-soro batean arbi-jorran zebillen gizon bat. Eta kazaari batzuk beetik gora bota zituzten txakurrak, atera zitzaien erbi bat, tiratu ta eritu zuten, eta ba-zijoan erbi ori txakurrak baiño leen gizona zebillen soro artara. Onek atxurrakin jo buruan ta sartu zuan zuloa eginda lurrean. Txakurrok joan ziran arrastoan araiño eta an zebiltzan arrastorik atara ezinda. Esan zioten gizon orri kazaariak: —Emen erbirik ikusi al dezu? —E, ze ordu dan? Onezkero amaikak izango dituk, erantzun zien. —Guk eztizugu ori esan. Erbirik ikusi dezun? Orduan be, eguzkiari begiratuta: —Onezkero amabiak laister izango dituk. —E, au tontoa dek. Eta kazaariok alde zuten andik.

Besteak eraman zuan etxera erbia ta baita gozo jan ere. Gero andik beste egun batean kazaari orreik menditik zetoztela ikusi zuten an gizon ori: —I, an nun xabik lenagoko tontoa. Ze ordu dan preguntau bearko

xau. Joanda, esan zioten: —Zu, ze ordu dan bai al dakizu? —A, a, leenagoko erbia? Majo xeuan. Ze kazuelakada jan giñuan!

Orduan batek esan zuan: —Onek tiro bat merezi leukek. —Neri tiro bat? Zuek al dezute eskubiderik nere sorora etorri txakur ta guzti ta emen erbia arrapatzeko? Gaur bertan parte emango yuat. Ni tontoa banauk, baxaukat nik lagunak listoak.

Orduan beste kazaariak esan zion: —Arrazoi dezu, oni ez kasorik egin.

Eta pakean utzi zuten.

33

AITA PALAZIOS (1)

Gure amandreak esaten zuan Aita Palaziosek, bere sermoietan, auxe esaten zuala: "Elizan sartu da kutizia, eta eztau urtengo". Kutizia ori aberatsai ondo egitea izango da, nik uste dot.

Beste au ere Aita Palaziosek esaten omen zuan: "Gaztaiñiak merezi dabela urregorrizko atxurrakin jorraketia. Nekazarien sabela beteteko ori dala janaririk onena ta merkiena".

---

(1) **Aita Palazios.** Mixiolari ospetsu bat izan zan. Oñatiko semea. 1727 gn. urtean jaio eta 1804 gnean. Zarauzko komentuan il zan.

34

"NEMO SUA SORTE CONTENTUS"

Bi bizitzako baserri etxe batean bizi ziran bi neska. Bata ezkondu zan beste erri batera eta bestea gelditu zan soltera. Andik urte batzuetara joan zan neska ori bere laguna ikustera. Esaten dio: —Ondo bizi aiz? —Ixillik egon adi, erantzun zion. Gogorrak ditun nik igaro ditudanak. Iñusentetan ezkondu nintzunan, baiñan askotan damutu nun. Nere gizona baiño txarragoak izango ditun, baiña obiak be bai. Eta eu zela bizi aiz ba? —I baiño okerrago bizi naun ni. Anaiak eta koñatiak, euren umiak azi arte, lan danak niri eraginda, orduan maite; baiña orain ikusi gura ezta; an ezpanengo gurago aiek. Ezkondu nindekiala, geratu nintzunan zorigaitzean, baiñan eznaun berriz deskuidauko...

Aldazgabeko launik eztago munduan.

35

"HOMBRE DE KANPANGIN"

Araozen gizon bat bakarrik zegoan erderaz zekiana. Eta bialdu zuten gizon ori beste batekin Vitoriara kanpaa zaarra eroan eta bi berriak egiteko. Joan ziran kanpangillearen etxera. Eta esan zioten: "Hombre de kanpangin, bategaz bi bear dituk egin; uno repique, otro

esquilón, trin-ton, trin-ton". Zela etzion entenditzen, erantzun zion kanpangilleak: —¿Qué dices?

Orduan Araozko orrek esan zion bere lagunari: —Onek keriza-denporarako egingo dituela esaten xok. Orduan kerizakin etorri ta eramango ditugu.

Joan ziran ba astokada-kerizakin, eta kanpaa zaarra an zegoan, eurak itxitako lekuan. Esan zioten: "Hombre de kanpangin, gure kanpaiak oindio eztituk egin? Ak orduan ere lengoa: —¿Qué dices? —Onek berriz ere keriza-denporarako esaten dok. Ba guk beste urtebetean ezin geinke egon; ta kanpaa zaarra atzera ekarri zuten.

36

ELORRIO IKUSI

Gaitz bat datorrenean, edo janik eza edo bizimodu txarra, onela esaten da: "Aurten Elorrio ikusi bearko diagu Kanpanzarrera barik". Lenagoko esakeria da au. "Onek erakutsiko digu Elorrio"...

Elorrio ikustea gaitza pasatzea da.

37

KASTIGURIK GOGORRENA

Zegaman egoan baserritar bat ango aberatsena, tabernara-ta sekula joaten etzana. Eta urte batean pen-

tsatu zuten alkate egitea. Ala jarri zuten alkate. Eldu zan San Bartolome eguna. Eta abisatu ta ekarri zuten kalera. Nola sekulan etzuan bizarrik kendu kalean, esan zioten: —Gaur afaitatu egin bear dezu barberira joanda. Ala joan zan, ta bizarra kentzen ainbeste min artu zuan. Berak ez omen zuan arteraiño beste ainbeste sekula sufritu.

Arratsaldean dantza-lekuan bi mutil asarratu ta il zuan batek bestea. Ta orduan nola zan alkatea jueza, eraman zioten mutil ori sententzia ematera, esanaz berotuta egin zuala ta parkatzeko. Erantzun zien alkateak: —Gizona il ta parkatu? Orain arte munduan ezagutu dan kastigurik gogorrena emango diot. Neri kendu didaten lekuan kendu deiotela bizarra! Eztu besterik ilgo, ez!

Ori izan zan eman zion kastigua.

38

DIRUA ETA ZORIONA

Madrillen eguan zapatari bat etxe kaxkar batean. Egun dana kantuan pasatzen zuan lan egiñaz. Alboan eguan aberats aundi baten palazioa, eta aberats ori bizi zan munduko atsegintasun danakin kantzauta, osasuna ere galduta. Egun batean joan zan zapataria ikustera, esanaz: —Nola bizi zara? Ondo jateko lain irabazten dozu? —Egun batzuetan bai, jauna, eta orduan

Jaungoikoari eskerra emonaz kantaitzen dot. Beste batzuetan gosiak egoten naiz, baiña orduan urrengo egunean jateko esperantzan kantaitzen dot.

Aberats ori joan zan etxera, boltsa bat bete zuan diruz: zillar ta urre ta... Uste zuan zapatari orrek dirua baleuko geiago kantauko leukiola. Eraman zion diru-poltsa ori ta bere mai-gaiñean utzi zion, esanaz: —Au zeuretako da, ezdiozu iñori zorrik, nai dezun moduan jan ta edan egin, eta kantau al dozun guztia.

Zapatariak sartu eban boltsa ori armarioan. Aberatsa urrengo egunean begira eguan zelako kantuak entzungo, baiña kanturik ez. Bigarren egunean, eta ezta, ixillik, kanturik ez. Irugarren egunean joan zan zapataria aberats ori ikustera eta ikusi zuanean: —Ene jauna, esan zion, niri mesede egitera etorri zan, baiña kalte egin dit. Nik eztet bear dirurik. Au ekarri eban ezkero, ez lorik, ez janik eta ez lanik, ezertxo eztet egin. Emen boltsa, artu ta eraman emendik.

Eta urrengo egunetik zapatari ori asi zan berriz kantuan.

39

EMEN DA, EMEN DA...

Oñatiko andra bat zeguan Madrillen iñude etxe aberats batean. Señoria zan oso txurra eta neskairi etzien opa prinzipiorik. Neskaak bazkaltzen zeudenian isillik

joaten zitzaien sukaldera ze jaten zuten ikustera. Orduan Oñatiko iñudeak asmau zuan gauza bat eta esan zien bestiai: —Zuek bazkaldu arte ni umiakin egongo naun pasilluan. Eta a datorrenean, nik umiari kantauko txanat: "Emen da, emen da, emen data, emen da..." eta zuek orduan aguro gorde jaten ari zeratena.

Eta ala egiten zuten. Egun batean señoriak esan zion iñudeari: —¿Qué quiere decir eso de Emen da? —Señorita, es un cántico en vascuence que allí se les canta a los niños. —Algo será, siempre está Vd. con su Emen da.

Ala señoriari tronpa jo zioten.

40

NAZIORIK ABERATSENA

Frantzian edo eztakit nun, nazio guztien agintarien billera aundi bat egin zan. Eta an ingles batek esan omen zuan: —Uste al dezute zein dan Europako naziorik aberatsena? Ba, nere ustez Espaiñia dek. Eta danak parre egin zioten. Baiña berak esan zien: —Parre egiten dezue? Jarriko dizuet ispillua. Espaiñiako Gobiernu danak alegiñak egin ditue nazioa arruinatzen, baiña oraindik ere eztute asmatu nola arruinatu.

Besteak esan zioten arrazoia zeukala.

41

ARAOZKO AUZOAREN SORRERA

Oñati "villa por sí" zan denporan, emengo mutil batzuk Bilbaon egin zituen lapurretak, eta eriotza batzuk ere bai, eta iges egin zuten Oñatira. Eta emengo Konde agintariari andik Bilbotik esan zioten mutil oiek il egin bear zirala. Eta Konde orrek erantzun zien iltzea kastigu txikia zala, berak zeukala pentsauta aundiagoa. Emen zegoala aiz-bitarte bat iñor bizi ezin leikiana. Ara bialduko zituala eta antxe berez ilko zirala. Ala bialdu zituan. Leku orren izena zan Araotz. Gero neska batzuk —nundik eztakigu— ostuta ekarri zituzten eta aiekin ezkondu eta sortu ziran familiak eta allegau ziran larogeiraiño. Au da Araotzen sorrera. Beti izan da esaera Araotz bandiduetatik sortutako auzoa dala.

* * *

"Araotz, garirik ez, eta galaots". Galaotsa da gariaren buruko lastoa.

42

LEEN ANDREGAIAK NOLA AUKERATZEN ZIRAN

Leen, gure gazte-garaian, baserritako mutillak neskak begiz jotzera joaten ziran neguan laian zebiltzanean, udaberrian arto ereiten, jorraketan eta baratza-la-

netan zebiltzanean. Udaan gari ebaiten, arbi ereiten ta belar-lanetan zebiltzanean. Uda-atzenean eunezko manta bat eta jipoia (eunezko txaketia) jantzita garo ebaiten, gaztaiña biltzen-ta zebiltzanean. Eta gero, gariak ereindakoan, liño-lanetan, trangatzen asi ta goruan jartzeraiñoko lanetan zebiltzanean. Orduan andragaiak berialaxe billatzen zituen. Eta ogeita lau-sei urte edo zortzirako ezkondu egiten ziran.

Orain baserri-mutil asko jaietan kaleko plazetara joaten dira neskak begiz jotzera. Eta egunik erdia apaintzeko gutxiegi duten señorita filiitai begira jartzen dira, eta sekula ezin andragairik billatu dute. Eta ogeitamabost-berrogei urte igaro eta ezkontzeko eztira moldatzen. Orregaitik dago baserrietan ainbeste mutilzar.

43

JUSTURIA ASTEN ZANEKO

Gu mutil koskorrak giñala, mendira joaten giñan ardiak jaixteko ekartera. Eta an genbiltzala justurixa asten zanean, gurasoak esaten ziguen elorri-arantza kolkoan sartzeko. Ori tximistagandik libratzeko zala. Eta bereala esateko:

Santa Barbara, Santa Cruz,
Santa Teresa de Jesús,
iñusentien ogia,
Jauna, miserikordia.

Ori esaten jarduten giñan justuria zetorren danien.

44

GOSEA ENGAÑATZEKO

Nere amandreak esaten zuan Carlos Quintoren gerrako denporan gose aundia egon zala emen. Ta Oñatin alkateak danboliteroa jarri zuala egun danean soiñua jotzen ibiltzeko kalean, umeak jan gabe engañatzeko. Umeak joaten ziran amarengana gosiak, eta amak emateko ezer ez, eta esaten zien joateko danboliteroagana kalera, an zebiltzala besteak eta. A zan meriendia samurra.

45

BEORREN ADIMENTUA

Ganaduak daukaten adimentua! Otsoen usaiña entzun orduko, beorrak asten dira danak irrintzaka eta batzen dira leku batera. Egiten dute korro eta artzen dituzte ume danak erdian, eta otsoari eztiote uzten umerik artzen. Ostikoakin kanpora jartzen dira korro eta zaintzen dituzte umiak, erdian preso artuta. Korro zeuden batean zaldi gazte batek korrotik urten zuan eta orduerdi bateko bidean otsoa bere atzetik zijoan aldiko bokau bat jaten. Uribarri ondoan jausi zan, iztar bateko aragia otsoak dana janda.

46

ERRUDIA TA AAPIXUA (1)

Gorgomendiren gaiñean dago Gaiztozulo. Obeto esateko, Buetraitzen ondoan. Auxe da Gorgomendiko Señoriaren bizilekua. Buztana luze ebala etortzen omen zan Anbototik Gorgomendira. Ura Gorgomendin zegoanean, negua txarragoa izaten zan. Gu gazte giñala, Oñatitik abadeak joaten ziran zulo ori bedeinkatzera. Orduan kutunak egiten ziran San Juan egunean bedeinkatutako belarrakin. Errudia ta aapixua ziran etsaia botatzeko indarra zeukaten belarrak. Urte danean eukitzen zan kutun ori lepoan. Orain oiek umekeriak dirala ta eztira geiago erabiltzen.

47

GURDI BAT EGUR TXARTELAGATIK

Garizuman etxean dotriña ikasten ibiltzen giñan, gero txartela artzeko. Oñatin baomen zegoan gizon bat Kredoa ezin ikasi zuana. Ta esaten omen zuan: —Burdi bat egur abadeari pozik emango nioke txartelagatik...

Zegamako mutil batek berriz, ak be Kredoa ezin ikasi, eta esan zion apaizari: —Berorrek ere ba al daki gure auntz gorritxok zenbat ortz dituan? Apaizak eran-

(1) **Errudia ta aapixua.** Bi belar-mota (ruda y apio).

tzun zion: —Nik datorren jairako jakingo diat, eta ik ere ordurako Kredoa ikasi; bestela txartela eztiat emango.

Baiña mutillak Kredoa etzuan ikasi. Apaizak: —Ikasi al dek Kredoa? —Ez, jauna, nik ezin ikasi det. —Ba zuen auntzak zortzi ortz zituk. —Goitik ala beetik zituk, ba? —Orixe etzekiat.

Eta orduan eman zion txartela.

48

JAUNA TA BERORI

Zegaman ba omen zegoan mutil bat abadeari "i" esaten ziona. Abadeak bada aitari esan zion mutillari erakusteko zela itzegin. Eta aitak esan zion mutillari: abadeari jauna ta berori esan bear zaiola. Mutillak urrengo apaiza ikusi zuanean, asi zan esaten "jauna ta berori, jauna ta berori". Apaizak esaten dio: —Zeiñek esan dik ori esateko? Eta mutillak erantzun: —Aitak esan zidak iri esateko.

49

AGUREA ETA TRENA

Zumarragatik Altsatsura trena jarri zutenean, Zumarragako baserri batean zegoan aitona zaar bat, oetik

jaikitzen etzana. Eta ari bere illobak esaten zioten: —Ene, aitona, zuk ikusiko bazendu orain jarri duten gurdia! Jarri dute gurdi bat berez joaten dana; eztu bear ez idirik eta ez zaldirik. —Eztidazue neri gezur ori buruan sartuko.

Eta egun batean aitona ori illobak artu eta eraman zuten trena ikustera. —Begira, aitona, oraintxe dator, begira ondo zela dijoan!

Eta bagoi bat idiz beteta zetorren. Eta aitonak esan zien:

—A, gizajoak, an idiak nun dijoazen, zertako esaten dezue gezurra?

Illobak esan zuten: —Agura deabrua! Bearrago genuan etxean utzi bagenu. Onek sartu ziguk ona.

50

BASERRIKO EZTAIAK

Leen baserriko eztaiak izaten ziran txekor bat edo bei bat il egun bi aurrez eta gurdi batean ekarri zaragi pare bat ardo ta gaiñera bear ziran gauzak; eztai bezperan senide guztiak eta inguruko bizilagunak oillo bana eta bizkotxo bana artu eta biltzen ziran eztaia zegoan etxean. Eztai-bezperan andra danak juntatzen ziran oilloak iltzera. Eztai egunean kozinerak (sukaldariak) ekartzen ziran bazkaria preparatzeko. Osaba, apaiza ta oientzat egoten zan mai bat, bakoitza bere platerakin;

baiña gaiñerako gazte-jenteari jaten ematen zitzaien erretillua deitzen zitzaion fuente edo ontzi batetik. Aldiko seirentzako, seiko bakoitzentzako jartzen zan erretillua, eta seirak andik jaten zuten.

Orduko bazkaria oraingo bazkariak baiño obea izaten zan. Lenengo, oillo-saldiakin zopa koipetsua. Gero garbantzu ta egoskariakin gozo-gozo betetzen zan. Gero aragi gisaua. Gero erretillu bakoitzari oillo bat osorik. Eta ordurako naikoa janda, batzuk pena artzen zuten: oilloa jateko gogorik ez...

Bazkari ondoren arrioa zabalketan zan: zenbat jantzi, zenbat traje. Atzenengo erakusten ziran gorua eta ardatza. Gero kozinerak artu bandeja bat eta batzen zituen propiñak, eta nobioaren aitari entregatzen ziran. Gero osaba ta aitona zaarrak zortziko-dantzia ateratzen zuten.

Ori egindakoan, joaten ziran zerbitzariak bakoitzagana, eta batek artoa ebaki igitaiakin eta bizkotxo-lekuan aora ematen zion; besteak kopia beteta ematen zion, eta a edandakoan askiñikoakin (anketako mantarrakin) ezpaiñak igortzi; eta irugarrenak ispillu-lekuan talopalia erakutsi. Aik bai ziran bodak! Orduan aitona-amona zaarrak eta umetxoak eta danak joaten ziran eztaietara. Oraingo baserriko bodak osaba-izebak bakarrik artu, kaleko ostatu batera, eta aitona-amonak eta umeak etxean negarrez. Oraingo eztaiak baserrirako dira lotsagarriak.

Orduko eztaiak mutikotxu-neskatillatxuak bizi guztiko eukitzen zuten gogoan. Jantzi berriakin nola izan ziran eztaietan.

51
BIRTUTE TEOLOGALAK

Fernando Amezketakoa joan zan txartela artzera Garizuman. Apaizak galdetu zion: —Dotriñante azkarra izango zera, noski. Fernandok erantzun zion: —Jauna, ongi ikasia ezta aaztutzen. —Ia, esan zazu ba birtute teologalak. —Teologalak? Aurrena fedea ta bestea ezperantza. Irugarrenak ba-du milloi bat mudantza. Il zan karidadea, bizi da bengantza.

52
MUNDUAREN ZABALA

Oñatin da baserri bat Etxeandi deritzana. Ango aitona batek, an alboan dago mendi bat Bakue deritzana, eta aren gaiñera igo zuan. Arritu zan alderdi danetara begiratu eta ainbeste mendi ikustean. Eta esaten zien bere lagunai: —Mutillak, mundu onek bazterrak zabalak dituk!

Ak uste zuan mundu guztia ikusi zuala.

53
ZAPOA GERRIKOAN

Gizon batek etxetik urruti zeukan lantegia. Aste guzia an igaro eta zapatuan joaten zan etxera, asteko

irabaziakin; eta astelenerako poltsatik dirua urritu egiten zitzaion. Ba-zekian lapurra zein zan, baiña arrapatu egin nai zuan. Eta zapatu batean, etxerakoan, billatu zuan zapo bat bidean. Eta gerriko-sakeletik dirua kendu eta an sartu zuan zapoa. Eta bere gerrikoan eraman zuan etxera. Eta afaldu ta joan zan lotara, eta gerrikoa utzi zuan mai-gaiñean, beti bezela.

Gero andrea joan zan gerriko-sakel ori zabaltzera, eta pisu aundia zeukanean poztu zan. Anilloa atzeratu ta zabaldu zuan sakela, diru asko zegoalakotan: eta zapoa berari begira. Artu zuan sustoarekin atera zuan garrazi ikaragarri bat. Eta gizonak esaten dio oetik: —Zer da? zer da? —Zapo aundi bat dago zure gerrikoan. Eta gizonak erantzun zion: —Ola, ola, bai e?

Orduantxe arrapatu zuan lapurra.

54

TABAKOAREN INDARRA

Aitona-amona batzuk bizi ziran euren illoba Josetxorekin. Jai egun batean aitona gaixo zegoan. Eta esan zion amonari: —Tabakoa ekarri, gero?

Amona kaletik etorri zanean, galdetu zion aitonak: —Tabakoa ekarri al dezu? Erantzun zion: —Aaztu egin zait. —Arraioa! Tabakoa aaztu? Orduan esan zion amonak: —Tankera ederra ematen dizu ba tabako

orrek, adurra ta lerdikia darizula. Ori entzutean, esaten dio aitonak: —Madarikatua! Tabakorik bear ezpada, txokolaterik ere ezta bearko. Jaiki zan oetik asarratuta, sukaldeko apaletik artu txokolateria, eraman atarira eta atxurrakin jo ta jo, opildu zuan.

Josetxok etzituan leenago sekula ikusi aserre eta bildurtu zan. Baiña gero bere itxulapikoa ausi eta bere diruakin joan zan kalera. Erosi zituan aitonarentzat libra bat tabako eta pipea, eta amonarentzat libra bat txokolate eta txokolateria. Joan zan saltoka etxera, eta aitona-amonak su-ondoan jarrita arpegi beltzakin itzik egin gabe zeuden. Eraman zien albora aitonari tabakoa eta pipea eta amonari txokolatea eta txokolateria. Orduantxe sukalde artan eguzkiak erten zuan. Aitonak pipea bete eta tximinian gorako keiakin asi zan fumatzen. Eta amonak txokolateria garbitu eta egin zuan danentzako txokolatea. Eta merienda ori egin ondoren aitona-amonak asi ziran gazte-denporako kontuak kontatzen. Begira illobatxo arek zer zoriona ekarri zien aitona-amonairi.

55

EZ GAOZAK LELOKERIAK ENTZUTEKO

Padre Ugartek deitu zigun bein auzoko gizonei Irugarren Ordena jartzeko erakutsiak ematera. Ze gauza aundiak Jaungoikoak egin zituan esaten ziarduan. Beste askoren ondoren esan zigun: gizonen begiak an urru-

tien ikusten dituan izar txiki-txiki aietan mundua sortu zanean tren expres bat atera balitza, oraindik ere etzala mundura alleatuko. Ia zenbat bide egongo dan pentsatzeko. Orduan San Juango amerikanoak esan zion Gezaltzako Teodoro zanari: —Au zoratuta zegok, goazen Motxonenera edatera. Lelokeri oiek guri esatera yatok pa, gu ez gaozak emen orrek entzuten.

Eta biak urten eta joan ziran tabernara.

56

EUSKERA ARABAN

Ni gaztea nintzanean, orain irurogeita amar urte, Arabako bazter-errietan lenagoko zaarrak euskeraz egiten zuten. Baiña gazteak etzuten ikasi eta orregatik galdu da ango euskera. Nere aitonaren bigarren lengusua Arabako aitona bat zan. Zaartu zanean nere amandreari esaten zion: —Zaartzaro onetan zer egingo degu ba beste lanik? Errezatzen marra-marra... Berau Oñatira etorri zan batean, Madiñako (1) arkaitzean buetra bat geldi zegoan, eta esan zion nere amonari: —Madiña aitz-gaiñeko buetra ori nork leukakien! Eta amonak esan zion: —Jango al zenduke? —Bai, Andragonako zabalian (Arabako baso bat da) beorraren tripian bat arrapau geben eta ark iraun eban artian ze okela gorriak jan geben!

(1) **Madiña.** Araozko auzoa. Zortzi bat etxe dauzka.

57

PAPA TA MAMA

Orain irurogei urte Arabara Oñatitik joaten ziran neska kuadrillak gari ebatera, trajetxo bat egiteko dirua irabaztera, orduan etzegoan dirurik eta. Arabako andrak txarrikumak obeto zaiketan zuten euren umiak baiño. Eta gabean eurak oian eta umia kuman eukitzen eben.

Emengo neskak zeuden kuarto batean lo. Umiak, berriz, garrazika gabean "papa" ta "mama". Eta nola emen umiari itz egiten erakusteko esaten zaion ogiari "papa" ta urari "mama", goizean neska aietako batek esan zien besteai: —Gau guztian umia euki xonai gosiak eta egarriak. Ogia eta ura eskaketan eta etxanai sikiera ekarri be ein. Onek txekonai errukiya umiendako!

58

GURE UMEA BIZI IZAN BALITZA...

Senar-emazte batzuk Araban bakarrik bizi ziran eta ume txikixa zeukaten. Egun guztiko sorora lanera joan bear eta soroak urrin. Eta umia zestotxo batean eroan

zuten soro bazterrera. Illunkaran andrea goizago etorri zan etxera, umia gizonak ekarriko eban ustean. Eta gero etorri zan gizona, ume ori andreak ekarri eban ustez. Eta gizona etorri zanean: —Umea eztakarzu? esan eutsan andreak. —Nik uste neban zeuk ekarriko zebela. Ta gizonak esan eban: —Ba orain joan egin bear dogu ekartera. Baiña andreak erantzun eutsan: —Ez adi joan orain, biar goizean be an egongo dok. Urrengo egunean joan ziran,ta umea ilda. Aitak negar egiten eban, eta amak esan eban: —Gure umea bizi izan balitza, ze gogorra izango zan! (Au gure amandreak esaten eban).

59

ARABARREN BIZIMODUA

Araban andrak baiño gizonak obeto bizi dira. Uda denporan sorora gizonak letxe joan bear. Eta etxeko lanak be egin bear. Neguan gizonak tabernara joaten dira, ogi mutur bat eta txorizo-mutur bat-edo etxean artuta. Eta tabernan kuartilloko pitxarrak artzen ditue bakoitzak beretzako eta aik edan ala parabolak esan (parabolak dira pasaizuak edo txistiak), eta soseguz egoten dira tabernan. Baiña andraak etxeko lan danak, txarrixak gobernau eta gaiñerako lanak: danak egin bear. Araban andra baiño gizon izan obe da.

60

JAUNGOIKOARI BIALEKU EMATEN (1)

Kaletarrak beti baserritarrendako opari (borondate) txarra. Tabernan dagozanean, bapo zurrut egin eta esaten dabe: —Eun kaletarrak baiño baserritar batek Jaungoikoari bialeku geixao emoten xak. Batean euri eske, bestean egualdi onen eske: orreik sekula etxaozak konforme.

61

JAUNGOIKOAREN OFIZIOA

Abadegai bat joan zan denda batera zapatak erostera. Denderua gorrixa zan eta galdetu zion abadegai gazte orri: —Abade egin bear al dok? —Bai, asmo ortan nago. —Ik jakingo ok Jaungoikoak ze ofizio daukon be? Eta erantzun zion abadegai orrek: —Bai, Jaungoikoa da eskillaragiña. —Eta eskillarak zer egiteko dituk ba? —Goian daudenak beera ekarri eta beian daudenak gora jaso egiteko.

Orduan esan zion apaizgaiak: —Pare bat zapata bear ditut eta gaur eztaukat dirurik. Denderuak esan zion: —Bueno, artu zak zapatak eta lenago ezpada, Obispo egiten aizenean pagatuko dituk.

---

(1) **Bialeku**=buruauste, lan txarra.

Ala artu zituan zapatak. Eta abade ori alleatu zan Obispo izatera eta denderu orrek bere semeak karrerak ikasten jarri ta tunante urten zioten eta jan zioten bere ondasun danak. Eta utzi zuten ezer gabe. Eta Obispo orrek galdetu zuan dendero ori zela zebillen, eta oso arruinatua. Eta joan zan gizon ori ikustera. Eta esan zion: —Ezagutzen al naizu? —Ez jauna, eztet ezagutzen. Orduan esan zion Obispoak: —Gogoratuko zera zure dendara zapatak erostera zela joan nitzan diru gabe eta neri karidadea egin ostazun esanaz: —Lenago ezpada, Obispo egindakoan pagatuko dituk. Eta galdetu ostazun ia Jaungoikoak ze ofizio eukan. Nik erantzun nizun zala eskillaragiña. Eta ia eskillarak zertako esan zenduan. Erantzun nizun: goian daudenak bera ekarri, eta beian daudenak gora eroan egiteko. Eta ni orduan beian nengoan eta gora jaso nau, eta zu goian zeontzen eta beera eretxi zau, baiña zeure kulpaz. Semeak azi bazenitu Jaungoikoaren bildurrean, onak izango ziran, baiña gaizki azi zenituan eta orregatik dira gaiztoak. Eta jan dizue zure ondasun danak. Baiña zuk orduan niri karidadea egin ostazun zapatak emonaz eta nik orain zuri egingo deutsut karidadia. Nik ipiñikozaut zeure bizi guztirako nun jan ta nun lo egin leku onean, baiña Jaungoikoari burla egiten ez asi. Ari eztiñork burlarik egiten. Zuk egunero meza entzun eta eguna ondo igaro, danairi ejenplo ona emonaz. Au da zuk neri egindako karidadien ordaiña.

Ta denderuak belauniko jarri ta mun emanda eskerrak eman zion.

62

ARANTZAZUKO BIDE ZAARRAK

Burdinkutz da Araba ta Oñatiren surgua (Surgua da muga). Burdiñezko kurutze bat dago an edo egoten zan leen, txikia, eskuarekin atarateko modukoa. Andik zetorren Erromesbideta. Burdinkutz azpitik Iturrigorrira zijoan bide ori. Au zan arabarren bidea Arantzazura etorteko.

Santa Triako (1) kaltzadatik Urbira eta Urbitik Arantzazura: naparren bidea ori zan.

Segura, Zegama, Mutilloa, Zerain ta oiek danak Arri Urdiñera etorten ziran. Brinkola aldekoak ere araxe, Katabera deritzaion lekutik.

Bizkai partekoak Oñatin gora, Arrikutzetik.

Arabarrak bazuten bide geiago ere. Bata Zurkuzko bidea, Arabako mendietatik Iturrigorrira jeixten dana: ortik ere asko ibiltzen ziran. Beste bat Katillu-iturrikoa, San Juanetik pasatuaz. Artazotik ere ba-dago beste bide bat, baiña ortik ezta ainbeste jente ibilli; emengo jentea bai, ortik ibiltzen da; Arriolara ta Narbaxara ortik bereala sartzen da; baiña erromes gutxi etortzen zan ortik.

(1) **Santa Tria**=San Adrián. Arkaitz zulatu batetik pasatzen da antziñako kaltzada zaarra.

63

IZARREN IZENAK

Bost-oilloa deitzen dira bost izar, beti alkarren lagun, beti leku batean agiri diranak. "Iru-izarrak" Bost-oillotik apartetxo, beti distanzia berdiñean agiri dira. Antziña, erlojurik ezegoanean, izarrak erloju izaten ziran. "Argi-izarra", izar bakarra da, besteak baiño aundixagoa.

64

ELIZIA, JAUSI ADI!

Oñatin izan zan aspaldi apaiz bat Segura apellidatzen zana. Naiko xelebrea zan, erdi eroa. Eta Arabatik ardoa kontrabando ekartzea pekatu aundi jotzen zuan. Gizon bat joan zan bein kofesatzera. Eta Arabatik kontrabandorik ia ekarri zuan. —Bai jauna. —Jesus milla bider, ori pekatua! Elizia, jausi adi, eta pekatari aundi au artu egik azpian! Eta gizonak erantzun zion: —Ni artzen banau berori be ezta urrin ibilliko. Orduan esan zion apaizak: —Gizona, inpernuko atean zaoz. Gizonak erantzun zion: —Ni atean banago, berori barruan dago. Txakurra puztu zak atzeko zulotik.

Eta iges egin zion.

65

ONDIO BAZAOZAK GIZON ONDRAUAK!

Uribarrin pasau omen zan. Galdara-konpontzaille bat etorri zan etxera eta latoi kaskoa ebagi eban galdaria maniatzeko. Eta orduan esan zion etxeko gizonak: —Orrelakoak bear dira? Gurean, kamarako sapaixan dago lapiko zaar bat bete olakoak. Guk aiek alperrik daukagu. Eroan gura baditu, nik ekarriko ditut.

Ala ekarri zion eta konpontzailleak esan zion: —Bai, onak dira, neuk eroango ditut. Eta ziran emeretzi ontzako urreak. Eta galdaria konponduta, errial bi propiña eman zion konpontzailleak etxeko nausiari. Eta gero gizon orrek esaten eben: —Ondio bazaozak munduan gizon ondrauak! Galdaria debalde konpondu eta berak emon eustan erreal bi neri!

66

ANDRA MARI MARTIKO

Arrikutz baserriko Korkostegi zeritzan nausiak Andra Mari Martiko egunean Aldaola (1) deritzan basora joanda, andik ekarri omen zituan sendor-ostro bizkarrean eta zozo-kumeak kolkoan.

Nere aitonaren esakera zan au. Esan nai du egun orretarako kanpoa urtenda egoten dala.

---

(1) **Aldaola.** San Juan Artiatik Arrikutzera bidean dagoan toki bat. Arlanduzko zubi bat dago bertan.

67

IÑOREN PEKATUAK EZ KONFESATU

Andra bat joan zan kofesatzera, eta mandamentu danetan berak pekaturik bape etzeukala, baiña beste etxeko andreak pekatu asko ta aundiak nola egiten zituan berak ikusten zuala. Gero apaizak eman zion penitentzia aldeko andrearen pekatuakgatik mezak atera eta entzun egin zezala zortzi egunean. Andrea larritu zan eta erantzun zion: —Baiña aren pekatuak nik pagatu bear al ditut? —Bai, zuk konfesatu dituzu eta penitentzia zuk zor dezu. Orain bestea libre dago.

Eta berriz etzan joan ez iñoren pekatuak konfesatzera.

68

EMAKUMIAK KONFESATZEN NOLA DENPORA ASKO BEAR DUTEN

Andra bat joan zan konfesatzera. Eta esan zion konfesoreari: —Jauna, nik pekatu bat daukat larria eta ezin atrebitu naiz esaten. —Tira, esan zazu, ez naiz ikaratuko. —Ba jauna, gosaria preparatzen ari nintzan, egurrak ezeak eta, gizona asarre aguro ibilteko, eta umiak ere an zebiltzan, katua ere etorri zan eta taloak erre ezinda... Umiak ere gosiak, gizona ere asarre, katua berriz etorri zan. —Baiña utzi zazu alper-itzak eta esan zazu pekatua. —Eta katuak talo bat eraman zidan eta "a madarikatua" esan nion...

69

KATUARI ZINTZARRIA JARRI

Arratoi gazte talde batek bein batean egin zuten ikaragarrizko jaia. Jan ta edan ta jostatu. Eta erabaki zuten: —Leengo zaarrok leloak izan dituk. Gu emen beti katuen bildurrez. Etzeok ola zela bizi. Katuari jarri bear zioegu zintzarria, eta soiñua entzun arte soseguz egongo gaituk.

Artan zeudela etorri zitzaien gazte askoren amandrea. Eta parre egiñaz esan zioten: —Guk egin degu asmazio izugarria! Pentsatu degu katuari jartzea zintzarria. Amandreak erantzun zien: —A gaztedi lotsagarria! Guk antziña asmatu giñian jartzia zintzarria. Zuek asmatu al dezue ba nun dan zeiñek ezarria?

Orduan lotsatu ziran arratoi gazteak eta ezagutu zuten gaztetasuna beti dala txoroa.

70

LEEN ETA ORAIN

Gu amazortzi urtegaz mutiko giñan. Primera-saltoka egin, txakolin-dantzia egin, toka-torreka egin ta ola ibiltzen giñan, eta illunkaran etxera. Eta orain amabi urtekin mutil. Tabernatara txurrutera, pelukerira apainketara, eta illunkaran tabernara. Edan ta fumau ta gaba galdu. Goizeko ordubitan nolabait etxera. Eta zortziretako lanera joateko, ogetik jaikiteko gauza ez. Ori da gaurko mutillak egiten duten bizimodua.

Beste zintzotasun bat zegoan leen. Orain ere egongo litzake, dirurik ezpalego. Diruak lujoa ta bizioa ekarri du. Oraingo gazteak Jaungoikoari baiño eguzkiari bildur geiago artzen diote. Illundutakoan uste dute Jaungoikoak eztauala gabaz ikusten, eta ia zelako astokeriak egiten dituzten!

Zenbat eskola geiago, alper geiago. Eskolak alpertu egiten du.

71

TXAKOLIN-DANTZA TA BESTE DANTZA BATZUK

Banakua kantatzeko letria zela zan: Espartiñak urratuta, zapatarikan ez, Bermeon gelditu naiz, oñetako miñez. Auxen dek egiya, zortziko berriya, iru txikitxorekin lau librako ogiya.

Txakolin-dantziaren letria: Lalarala...Txakolin, txakolin, txako-txako, txakolin,... txakoliñek on egin. Peruxe. Txakolin ta Peruxe. Peruxe, Maruxe, Peruxe ta Maruxe. Peruxe, Maruxe, Peruxe ta Martintxo... (1).

Agura zaarrak alkantzura egiten zuten.

Beste dantza baten letria: —Kontxe, sardiñak zertan dituzu? —Amalau marabedian. —Autsi amabi, zoaz emendi Jaungoikoaren grazian. (2)

(1) **Txakolin-dantza.** Bi gerriko lurrean gurutze-moduan jarri eta oien gaiñean egin bear da dantza ori. Aldiko batek bakarrik egiten zuan. Ikusi beerago dantza onen airea.

(2) **Kontxe, sardiñak...** Ikusi beerago airea.

A, orduko bizimodua gaurko gazteak egin bear balukete! Poltzikoan dirurik ez, dantza batzuk egin, ta kantzautakoan etxera lo egitera...

72

GANADURIK ABERATSENA

Emen, ganadurik aberatsena ardia da. Ta urrengo, beia. Beorra, berriz, kaltegarria. Bape ezpalego obe. Emengo baserrietan ardia eta beia: besterik ezta bear. Txerria ta oilloa ere bear dira, baiña oiekin bakarrik ezta bizimodurik. Emon baiño jan geiago egiten dute askotan. Konejuakin be eztago bizimodurik. Erleak, ondo zaindu ezkero, emoten dau, baiña au ezta paraje ona oientzako. Emen erleak lan egiteko egun gutxi izaten dira. Erleak lan egiteko bear dau egualdi ona eta basoan egon dedilla lora asko. Aizea ta laiñoa dira erleen etsaiak.

73

LIZUNERA ERDI ZINTZILIKA (1)

Leen emen ta Oñatin zegamar asko egoten ziran morroi ta neskame. Zegamarrak orduan inoranteak zi-

(1) **Lizuna.** Gezaltzako baserrien atzeko aldean arkaitz ikaragarri bat dago, zuloduna gaiñera; bertan ezkutatzen da Arantzazuko erreka. Arkaitz oni deitzen zaio **Lizuna.**

ran, ezer ikasi gabeak, ezjakiñak; baiña geroztik bizkortu dira; danetan bizkorren egin dira.

Gezaltzan egon zan ango morroi bat, Jose zeritzana. Eta Gezaltzako lizunean, goiko erpiñean zegoan ametz arbola bat, lizunera erdi zintzilika. Eta jai egunetan aren gaiñean egoten omen zan Jose ori txilibitu jotzen bere burua erdi zintzilika esegita. Danak bildurrez jausiko zala, baiña bein ere etzan jausi.

74

ELIZAKO AULKIA LUZATZEN

Zegaman aspaldi gertatua omen da au. Ayuntamentuak elizako aulkia zeukan bear baiño motxago. Mezetara zijoazenean kapakin, eziran kabitzen, eta erabaki zuten luzetu egin bear zala. Ortarako egun batean bi pare idi jarri bi puntatatik, eta idiak al zuen dana tiratu arte jardun ziran. Eta orduan: —Ia mutillak, eseri gaitezen. Eta nola etzeukaten orduan kaparik, elizan baiño asko lasaiago jarri ziran, eta: —Arraioa, luzetu diagu mutil au! Gero eraman zuen elizara.

Eta urrengo jaian joan ziran kapakin, eta lenago bezin estu. Eta esan zuen: —Arraioa, au atzera laburtu dek. Onekin ezdiagu gauza onik egiten. Basora joan ta arbola on bat aukeratu bear diagu, berria egiteko.

Bakotxak zeukan tresnak eramateko agindu zuan alkateak, arbola botatzeko. Orduan aizkorarik-eta apenas zegoan. Tresna onik etzuan iñork eraman. Alkateak esan zien: —Egon pixkaat, eskuai txistu eman arte, eskuak berotu zatak eta. Ala erori ziran danak lurrera. Eta ikusi zuten an albotik erbi bat zijoala, eta alkateak esan zien: —Mutillak, norbaiten animea joan dek! ori gorria zuan eta animea izango dek. Ia nor falta geran. Asi zan kontatzen. Eta kontatzen zituan bera ez beste danak, eta zein falta zan ezin gogoratu.

75

TXIMINOAK ETA SONBRERO-SALTZAILLEA

Sonbrero saltzaille bat zestokada bat sonbrerokin erri batetik bestera zijoan. Eta an bidean deskantsatzeko utzi zuan zestoa bide bazterrean. Eta bera pixka bat aldendu zan. Eta an zela zeuden tximino silbestreak, ikusi zutenean berak sonbreroa zeukala buruan, danak arboletatik jaitxi zestora eta jantzi sonbrero bana eta igo zuten arbolatara. Gizon ori larritu zan, zestoaren ondoan ernegatzen jarri zan, esanaz: —Nik zer egin bear det orain? Ta bere buruko sonbreroa artu ta indarrez bota zuan lurrera. Ta ori ikusi zuenean, danak arboletatik bakoitzak bere sonbreroa bota zioten, berak egin zuana egiteagatik. Ori da tximinoen egikera: gizonak egiten duana, berak ere egin bear.

76

LURRAREN IBILLERA

Ezjakiñen siñismena da mundua geldi dagoela eta eguzkia dabillela. Orain jakintsu asko zela sortu diran, oiek beste aldera pentsatzen dute, baiña ezjakiñok ezin siñistu degu jakintsu oiek esaten duena.

Lurrak egunero gaiñazpi buelta ematen dabela, ezjakiñak eztute siñisten. Egunaz buruz gora eta gabean buruz bera, zelan egon leikien? Ori milagro aundia da.

77

LENENGO AEROPLANOA

Orain berrogeta lau bat urte. Agustua zan. Eta gu gari joten kamaran. Amar urteko mutilla zebillen kanpotik guri garia ekarten. Eta etorri zan deadarka: —Eneee, buetra zaar aundi bat agertu da Atxuiko aitzen gaiñetik eta Araotz aldera joan da. Ak eroan dau zaratia!

Nik esan notsan: —Ori Areoplanua izango zuan.

Eta urten giñan kanpora, baiña orduko ezkutau zan, ta ez geben ikusi.

78

LENENGO BIZIKLETA

Lenengo bizikletia Arantzazura etorri zanean, Kortakogaiñean batek ikusi eben, eta asi zan danai deadarka: —Txirrinka baten gaiñean joan dok gizon bat, eta ori beste mundukoa izango zuan.

79

LENENGO AUTOMOBILLA

Emen lenengo entzun zan benteboliñoak asmau zirala, berez joaten ziranak. Eta Donostiatik Madrillera joango zirala egun batean amabost. Orreek ikustera asko joan ziran Arabara. Artean txabola bat egiten ari giñan, eta Migel Igartua zan arotza. Arek joan nai izan zuan Salbaterrara. Eta etxeko andreak esan zion: —Ez adi joan orain, benteboliñook gero ere ikusiko dituk eta.

80

LENGO UMIAI KANTATZEN ZITZAIENA

Lenagoko amandre zaarrak umiai kantatzen osten:

Bilin bolon bolaixo
aitzari ura daraixo
sagarrari mozkixo (eztakit neuk be zer dan)

akerrak esan
idiya dantzan
astoa danbolin joten
satorra eta kirikixua
begira barrez itotzen
zorrixak eta arkakusoak
ipur saltoka jolasen.

Gezaltzako Iñazio Arregi zanak gabian oerakoan umieiri —arek be ume-pillia zeukan-da— esaten osten lenengo oraziñoak, eta gero:

Iñosente potente,
Errekaldeko txakurrak
buztana tente
Iñosente potente
babalora
Errekaldeko txakurrak
buztana gora.

Eta danak lotara bialtzen zituan.

81

ATZENENGO GAITZA EZ, BESTE DANAK (1)

Erri batean medikue falta zuen. Eta etorri zitzaien Madrilletik jaun bat esanaz ango Madrilleko klinika

(1) Ipui au "Baserritarra" zeritzan aldizkarian irakurrita omen daki Grazianok.

batean egon zala amar urtien eta nai bazuen bera etorriko ote zan. Alkatiak deitu zien erriko jente danairi: —Madrilletik etorri da mediku berria: Udaletxera bildu dedilla erria, danok ezagutzeko dakarren berria. Ala bildu ziraden erritar danak. Eta alkatiak esan zion jaun orri ia agintzen zuan sendatzeko izaten ziran gaitz guztiak. Ala erantzun zion berak: —Bai, jauna, atzenengo gaitza ez, beste danak. Erri guztiak erantzun zuan konforme zirala. Eta sakabanatu ziran danak esanaz zijuazen: —Itxura onekoa dek gizon ori.

Baiña an bazan baserritar bat goitizena Juan Kaiku deitzen ziotena. Eta arek esan zien: —Uuuummm... nik baiño itxura obia artu diozute. Praka zaartxuak zauzkik ba. Berriak egitera etorri ote dek?

Juan Kaiku orri bultza egiñaz esan zioten: —I beti Juan Kaiku, astakeriak esaten. Gero eman zioten mediku berriari jan-edan bat Ayuntamentoakin batean. Danak moskortu omen ziran. Alkatia beso bitatik elduta eraman zuen etxera eta medikua maipera erori ta lo gelditu zan.

Gau artan baserriko mutil bat etorri zan gizon bat zegoela gaizki eta medikuaren billa. Etxeko andreak esan zion aurreko egunean irten zala eta etzala etorri. Azkenean maiazpitik irtenda joan zan mediku ori bere etxera. Etorri zan berriz ere mutilla esanaz gizona il zala. Medikuak erantzun zion: —Joan banintza ere alperrik izango zan, atzenengo gaitza izango zuan da.

Gero Ayuntamentuak galdetu zion ia atzenengo gaitz orrentzako erremediorik ez al zegoan. —Bai, egon-

go ezta ba! Madrillen daude aparatoak. Aietako bat ekarri ezkero, geiago ez litzake iñor ilgo. —Zenbat kostatzen dira aparato oiek? —Ba zazpi bat milla pezeta. Eta bialdu zuen jaun ori bederatzi milla pezeta emanda Madrillera.

Amabost bat egun igaroko zituala eta alkatia larri zegoan. Berak karta bat egin zien andik esanaz pixka bat egoteko, laister etorriko zala: aparato berriak obiak bukatzen zeudela: kanposantuari atea itxitzeko paretakin, geiago etzala bear da.

Andik egun batzuetara etorri zan Boletin Ofizialean nola "un tal Silicio, de oficio barquillero, habiendo adquirido una pequeña fortuna desempeñando el cargo de médico en un pueblo, ha contraído matrimonio con una señorita de Madrid y se ha marchado a Buenos Aires"...

82

SAPIÑUA

"Ori sapiñua baiño biurragoa dek": lengo esaera bat da au.

Gurdia lotzeko lokarriak sapiñuak izaten ziran. Makillak biurrituaz egiten ziran. Katiarik etzan garaian aiekin lotzen ziran gurdi egurrak ere. Lenagoko lokarriak oiek ziran.

83

EIZTARIEN GEZURRAK

Kazaari bat eguan gaixorik su ondoan. Eta andreak esan zion: —Gaur zenbat uso doian! Esaten dio gizonak: —Ekarri zazu eskopetia. Eta tiratu zuan tirua tximinixatik gora. Eta gabean egin zuan euria, eta kamaran dana txitxiña (itokiña). Urrengo egunean esan zion semeari: —Ia, joan adi teillatura txitxiñak konponketara. Igo eban eta teillatuan dana usoa ilda. Teilla-kanaletan ainbeste uso egualako egin ziran txitxiñak.

* * *

Beste kazaari batek esan zion au kontatu zuanari: —Nik ori baiño aundiagoa egin det. Goizian, artian illun zeguala, txakurrak atara zuan erbia. Eta biak alkarren atzetik zijuazela tiratu nion tirua eta erbia zalakotan txakurra il nuan. Eta erbiak artu agiñetan eta txakurra ekarri zidan.

* * *

Beste batek esan zien: —Nik ori baiño politagoa egin nuan ba. Aizkoriakin ta zurda-sokiakin zendor bat orri ekartzera joan ninzuan. Igo ñuan aritz baten gaiñera eta ikusi nittuan bi basurde nere aldera etozela. Eta etorri ziuzan nere aritzaren azpira. Atzekoa itsua zuan, besteari agiñakin buztanatik elduta. Asi ziuzan ezkurrak jaten. Tiratu ñostian aizkoria goitik beera, itsua asi zuan bestearen buztana topau-ezinda, besteak iges egin ebanean. Jatxi nintzuan lurrera eta zurda-sokiaren

puntia emon nitxan agora eta pozik eldu txan bestearen buztana zalakotan eta sokatik eruan ñuan etxeko txarriteira.

84

BUETREA ETA MUTIKOA

Emen Aloñan ba-dago potolotxu bat, oso potolo (1) polita, eta gure aitajaunari nik entzundakoa: Kaleko mutiko batzuk joan zirala Aloñara jai batean, eta an potoluan ardi bat eguala ilda eta buetrak a jaten. Eta arrapau ebela buetra bat eta lotu eutsailla ankatik soka bat. Eta mutiko batek lotu ebela soka ori gerritik. Eta potolotik atera ebenian buetrea kanpora, jaiki zala egaraz, artu mutikoa aidian ezkutau zala Gorbeixa aldera, mutikoa zintzilik eroan ebala eta geiago iñork ezebala ikusi.

85

OÑATIKO MADURA

Maduria esaten zaio mendia eztanari. Launeko lekua, leku beia ta ona: madura ori da. Oñatiko maduria. Mendian edurra danean, esaten dogu: "Au mendi-edurra dok, au maduran etxok egingo! Maduran ondo zaozak, ondo bizi dituk, gu berriz edur-peien".

(1) Potoloak dira mendian egoten diran sakana txiki batzuk (hondonadas). Buetreak, potolo-barruan dagoan bitartean, ezin du egan egin, egoakin beia jotzen dualako.

86

AGURE ZAARRAK, MALO

Oñatiko Uarka-alde esaten zaion baserriko nausiak esaten zion nere amandrea zanari Irubietara joaten zanian: —A, Marixa, Marixa, zaarrok gaizki gabiltz!

—Ez, oindio berori ondo dabil, erantzuten zion nere amandreak.

Eta Jose Manuelek (ala zuan izena): —Ardao zaarra, gari zaarra, urdai azpiko zaarra eta olakoak onak dira. Baiña agure zaarrak, malo.

Zaarren estimazioa igesi doa.

87

MIKELETEAK

Amaika lelokeria Diputazioak egin ditu emen! Etxeak mendietan egin eta mikeleteak bertan jarri, baserritarren kontrabandoa zainketako. Lenengo egin zuten etxe bat Katillu-iturrin eta gero Estopa-sakon esaten zaion lekuan, San Juan ondoan.

88

TXANDA PASATU

Au geroago okerrago dijoa.

Gu gazteak giñanean gizonak joaten ziran tabernara; mutillik ez. Eta gu pozik egoten giñan gure txandia etorriko zala. Eta gu gizon egin orduko, mutillak ikasi eben, eta gure txandia saltoan pasau da.

89

URIBARRI-GOIA

Lenago, emen etzan izaten auzo-alkaterik. Uribarrikoak agintzen zuan emen. Uribarri-goia esaten zitzaion auzo oni, eta Uribarri-beia besteari. Orain irurogei urte inguru jarri zan alkatea Uribarri-goian.

90

PIÑUAK

Piñuak oraindik ekarriko dau iñork gura eza. Emengo jentea lelua da. Piñua karutu zanean, dana piñua. Baiña ortik etorriko da iñork bear eza.

Lengo urtean beorrak karutu ziran ainbeste. Eta beor-jabe danak uste eben: Aberastu gaituk! Askok

zer pasatu zan? Urte batetik bestera ziaro merkatu ziran, jo eben beia, eta orduan danak beorrak saldu gura eta iñork erosi gura ez. Orren leluak gara, gizona! Piñuakin ere ori dator.

91

LENGO ARGIAK

Erretxiñak izaten ziran azufriakin egindako kandela triste batzuk. Keia ugari ta argi gutxi. Nekez ixio ta aguro itxungi.

Gero agertu ziran petrolio-ontziak. Aik zerbait obiak ziran. Baiña aik euken peligro aundia. Itoietan ta kamaretan-ta arekin ibilli ezkero, etxea erreteko peligrua egoten zan.

Gabean andrak goruetan egiteko, bat jartzen zan suari argi eragiten zotzak emanaz, eta besteak aren argitan liñua iruten.

92

TXIMISTA-ARGIA

Orain berrogetamar bat urte Mondragoeko Cerrajerak jarri zituan Jaturaben makina-etxeak. Jaturabetik Gezaltzara argia ekarteko, geuk gaztaiña ederrak Madiñan erosi, Aldaolan su egin eta ondoak erre metro bat inguruan lurraren barruan nekez ustelketako. Pos-

tiendako zuloak geuk egin, eta posteak sartu eta danak geuk egin geben. Kablia be geuk pagauta. Argi ori etorri zanean, orduantxe zabaldu eban eguna! Ori asmau ebenak be, mutillak!

93
ESAERAK

Iru gauza dira munduan alperrik galtzen diranak: Mendiko egurra, alperraren indarra eta pobriaren arrazoia.

Asto illari garagarra emon buztanetik. Baiña ezin biztu, a ilda beti.

"I oindio San Martiñeri olua pagau gabe ago" (=gaitzik ikusi gabea aiz oraindik).

94
AIZEAREN KOLOREA

Jaturabeko Errotako Frantzisko zana izketan txistosua zan. Urruxola Garaira joan zan batean, ango Santi bere adiskireari esan zion:

—Aurten arto kaskartxoak dagoz.

Erantzun zion Santik:

—Bai, aurten aize gorria ibilli da, eta orrek galdu deusku artuok.

Orduan esan zion Frantziskok:

—Neu be zerbait banintzala uste neben, baiña zu ni baiño geiago zara, aizeari kolorea ikusten badiozu...

95

JOSE SAN JUAN (1)

San Juan Artixako Jose zana eungarren urtean il zan. Gizon jatorra, oso ezaguna zan inguru ontan. Ari Oñatiko Apaolaza medikuak galdetu zion:

—Zuk zure bizimodua zela eroan dozu?

—Ba, jauna, nik goizean, jaikitakoan, lenengo iru edo lau kopa aguardiente edan. Eta gero dagoena jan: artoa ta esnia ta berakatz-saldia ta... Medikuak esan zion: —Aguardientea da ba edaririk txarrena gizonendako. —Ba, niri beti ona egin dost.

Bein batean Mondragoera feriyara joanda bueltan etorrela Zaiñartuko ortu batean ikusi eben aza aundi bat, eta irartargitan nola etorren, aza ori artu eta eroan eben bere etxera, San Juanera. Gero aza-jabia, ikusi ebenian aza aundia falta zala, esaten jardun zan:

—Ezta ba izango urriñekoa gure lapurra. A ezeben eroango San Juan Artixako Josek...

Eta berak eroan...

---

(1) **Jose San Juan.** Gizon oni buruz zerbait esan genduan "Egan"-en. Ikusi "San Juan de Artia", Egan 1956, 3-4, 26 orrialdean.

96

DISTRAZIOAK OTOITZEAN

Santiago Apostolua bein batean zaldi-gaiñean zijoala, arrapatu zuan gizon bat oiñez. Eta esan zion gizon orrek: —Jauna, berori ederki zaldi-gaiñean, eta nik oiñez joan bear.

Esan zion Santiagok: —Aitagurea errezatzen badakizu?

—Bai, jauna.

—Bueno, Aitagurea esaten badezu nik entzuteko moduan, asi ta akabo beste pentsamenturik burura etorri gabe, zeuretako zaldi au.

Ala gizon ori belaunikatu eta asi zan: "Aita gurea, zeruetan zaudena, santifikatua izan bedi zure izena, betor gugana zure erreinua...".

—Silla ta guzti emongo al dost?

—Orain ezela be ez, eztozu irabazi ta.

Ak be ezeben asko falta irabazteko, baiña etzan alleatu.

97

GAIZTOAKIN BATERA ONAK ZIGORTU

San Pedrok esan zion Jesuseri bein batean: —Jaungoikoak kastigu bat botatzen dabenian gaiztoak eta onak, danak zigorketan ditu. Ori ezleuke egin bear. Zergatik eztitu zigorketan gaiztoak bakarrik?

Jesusek erantzun zion: —Jaungoikoak berak dauko bere eskua eta iñok ezin leikio ari agindu.

Gero bidean topau eben erlakuma bat. Eta esan zion Jesusek: —Pedro, auxe artu eta eroan egin bear xuagu, eztia egiteko. Zabaldu kolko ori, ortxe joango dok ederki.

Jesusek kiñu egin erleari beatzakin, eta sartu zan Pedroren kolkoan. Eta bidean zijoazela asi zitzaion batzuk pikaitzen eta eskuakin estutu eta kolkoan danak il zituan. Gero Jesusek esan zion:

—Ementxe ipiñiko xuagu erle ori. Zabaldu kolkoa, Eta erle danak ilda.

—Zer egin dek? Zergatik il dituk erleak?

—Pikau egin nabe ta...

—Danak pikau aue? Zergatik eztituk ba il pikau auenak bakarrik? Ik eztok ba esaten Jaungoikoak gaizki egiten dabela gaiztoakin batera onak zigorketea? Ba euk be orixe egin dok. Jaungoikoari ez kulparik bota.

98

ESNEDUNAK ETA ANTZUAK

Orain irurogei-irurogetamar urte, Arantzazuko elizan etzan aulkirik. Aurreko aldean egoan aulki bat bakarra. Emakumiak egoten ziran lurrean eserita. Gizonak zutik bazterretan. Urbiko artzaiak (orduan Urbian etzan kapillarik ez mezarik, orain bezela) egoten ziran makillien kontra gorputza deskantsauta, zutik.

Bein zortzi-amar artzai illaran zeuden ola, eta Aita Naveran andik pasatu zan eta erai begira jarrita esan zien: —Txakur-bildurra al dago?

Aberatsak etortzen ziranean, prailleak sillak ekartzen zien sakristiatik. Bein, mezatatik atera giñanean elizpera, artzaiak asi zuen izketa: —Aberatsak kotxean etorri soseguz, batere nekatu gabe, eta prailleak oiei sillak ekarri. Gu ainbeste nekatuta etorri, eta guri kasorik ez. Au dek mundu-modua!

Gero nik esan nien: —Baiña ori prailleei zuek erakutsi diezue. Esnea daukaten ardiak zuek ere oso zaintzen dituzue. Baiña antzuak uxo egin eta trabatik kendu, besteak jaixteko; bestela ezin gaztairik egin. Eta aberatsak dituk esnedunak eta gu antzuak gaituk.

Orduan erantzun zidaten artzaiak: —Bai, i ere prailleen antzekoa aiz.

99

ESAERAK

Ez aiz mutil txarra i Erromara bulda-diruakin bialdu ta zuzen entregatzeko.

Goizeko ozkorriyak (laiño gorriak), illuntzerako euriya. Illuntzeko ozkorriya, goizerako aizea.

Asensio letaiñak euritsu, urtia dator ogitsu.

San Juan eurigabea, urtea ogi gabea.

Goizean Aizkorri gaiñera aari-buruak datozenean, ogeita lau ordu barru lurra bustiko dau. (Aari-buruak dira laiño-moltsuak, motroka-motroka daudenean).

Mee-unatik goria (lepotik gorakoa), gizonik geienak alperrik daukate.

Apirillen azkenian, orria aizgaiñian. (Esan nai du apirillaren azkenerako Aloña mendiko arbolak orriz betetzen dirala).

100

ASTOAK ETA TXAKURRAK

Ez astorik ez txakurrik etzan emen gure gaztetan. Norbera asto eta norbera txakur izan bear. Baiña batez ere astoa gauza bearrekoa da baserrian. Orain astoakin lan asko egiten da. Eta txakurrak ere artzaiendako oso bearrekoak dira. Orain irurogei urte emen etzan txakurrik. Naparroako artzaiai ikusita emengo artzaiak txakurrak jartzen asi ziran. Astorik be etzegoan eta kargak norberaren bizkarrean edo buruan erabilli bear. Errotariak zeukan bi asto zar; erak zorroak ekarri ta erak partitu egiten zuten.

Astoak eta txakurrak daukate oso oitura ezberdiña. Astoa makillaz alde batetik jotzen bada, mokorra okertu eta beste aldea ematen du jotzeko, eta danak isillik artu. Txakurrak, berriz, makilla gora ikusitakoan, jo baiño leen, garrazi aundiak atera, iges egin eta andiko aldetik begiratu.

101

MOJEN AROTZA

Santa Anako (1) mojak zeukaten arotz bat euren bezerua, bearra zuten danian eramaten zutena. Orrek semia ere arotza zeukan eta abisatu zioten joateko. Aita nola zegoan gaisorik, ari esan gabe semea joan zan. Eta teillatuan zegoan itokiña eta semiak jarri zuan. Eta eman zioten amarretakoa. Etxera joan zanean, aitari esan zion: —Santa Anan izan naiz. Eta galdetu zion aitak: —Zer egin dek pa? —Ba teillatuan egoan txitxiña, teilla zulodun bat. —Eta zer egin diok pa? —Ausi ta kubiertan jarri. Aitak esan zion: —A gizajo leloa. Aita baiño semiak listoago izan bear likek, baiño i ni baiño asko tontoago aiz. Amaika amarretako eta merienda eman zidan neri teilla arek. Nik beste leku batera aldaketan nuan eta euria zan danian beti txitxiña. Goizetik joan ezkero, amarretakoa. Arratsaldetik joan ezkero, merienda. Iri bat eman dik, baiña geiago etxiguk emango. Oriek dituk tontuen lanak.

102

EZTIAGU MORROI TXARRA EKARRI

Mutil bat joan zan morroi etxe batera. Eta alperra zan mutil ori, eta nagusiak etxeti bota nai izan zuan, eta

(1) **Santa Ana.** Moja-komentua, Oñatin.

asmatzen zion aldrebeskeri guziak. Eta nagusia baiño bera okerragoa zan. Egun batean esan zion etxea zaintzeko, sukaldea ondo zaintzeko, eta soroak ere bai, auntzik etortzen bazan. Eta etxean gelditu zan mutil ori.

Etorri ziran auntzak sorora, eta orduan bera zegoan barrikatik atera ta sagardoa edaten. Eta asi zan kortxoaren billa, eta ezin kortxorik billatu. Eta sartu zion barrika orri zakurraren buztana, esanaz egoteko geldi. Eta atera zan leiora, eta auntzak dana beteta soroa, ta: —"Anda Gorri, Anda Pinto", bialdu zuan txakurra auntzakana, ta jakiña! sagardoa dana atera zan sukaldera, igari jarri zan. Ori ikusi zuanean, "Ze egingo ete diat nik oraiñ!" esan zuan. Oramaian zeuden tremesak eta ogiak erreta, eta sukaldean jarri zituan arpauso, tremesak eta ogiak jarri zituan nausia etortzerako. Etorri zan nagusia, ta gari guztia galdua, janda, sagardo dana sukaldean zabalduta, eta jateko danak arpauso jarrita, eta bera morroia oian lo. Orduan esan zuan: "Bai, bai, naikoa diagu, geiago eztiagu bear. Eztiagu morroi txarra ekarri. Gure sagardoak, gure gariak eta gauza guziak deabruak eramanzitik, eta agur", Eta eman zion bere soldata eta bialdu zuan morroia etxera.

103

ARTOA ETA GARIA

Gariak esan zion artuari: A, a, artua, artua, i bai janari bastua! Ni nagoan lekuan i beti sobratua.

Artuak erantzun zion: A, gariya, gariya, ori dok arrokeriya! I jaten auenak muturra zuriya, ni jaten nabenak arpegi gorriya...

Artua len emen zintzo jaten zan, baiña orain artua jateari itzi xako. Aurki, olan bagoiaz, ogiaren lekuan bizkotxoa eskatuko dabe gaurko gazteak.

104

OPARI ONA

Zegamarrak Arantzarurako jayera aundia beti euki dabe. Jayera da borondate edo opari ona, kariñua.

105

ALPARGATAK, ABARKAK ETA GALTZAK

Alpargatak: guk beste oiñetakorik ez genduan izaten mezatara joateko. Eta euria bazan, alpargatak lepoan jarri ta ortozik joaten giñan elizperaiño; an alpargatak jantzi, ta meza entzutera. Elizatik urtendakoan, alpargatak erantzi ta lepora; ta uda guztian alpargata berriak. Beien narruakin josten ziran abarkak.

Ardi-uliakin, berriz, galtzak egiten ziran. Baiña ibillera asko egiten ziran ortozik. Anka-azpian orduan narru lodia eginda egoten zan, eta etzan miñik artzen.

106

AZKARTZA

Azkartza deitzen diogu Koroazioko kapillatik prailleen baratzaraiño dagoan bitarteari, goiko bidetik asi ta kamioraiño. Eliza ta komentua dagoan tokiari, nik dakidala, etzaio esaten Azkartza, Arantzazu baizik. Arantzazu onek beste izenik daukan nik eztet aitu izan.

107

TXERRIAK ETA ARDIAK

Txerriak daukaten alkar maitasuna! Txerri bateri eldutakoan naiz persona batek naiz animali batek, garrasi ikaragarriak ateratzen ditu, eta aren kurriskatara beste txerri guztiak biltzen dira agiñak zabalik defenditzera. Eta ardiak, ostera, bateri eltzen bazaio, bera isilik egongo da, baiña beste guztiak iges egiten due. Oiek bai eztaukatela alkar maitasunik!

108

1888-KO ELURTEA

Ezagutu dedan elurterik aundiena 1888-koa izan zan, nik amar urte nituala. Otsaillean asi ta Aprillerarte dana

elurpeian. Orduan ganadu asko goseak il ziran. Gerok ere makiña bat gose igaro genduan. Orduan etzan kaletik ezer ekartzen, orain bezela. Artoa iotzeko ere errotara ezin joan. Taloa jateko iriña falta. Urte ari Txirritak jarri zion bertso bat esanaz: "Ijituak amona jan zuten urtea".

BIGARREN PARTEA

BERTSO-SORTA

I

EGILLEAREN BERRI EMANAZ

1

Anduaga tar Graziano naiz
Gezaltzan jaio ta azia,
nekazaritzan igaro det
nere bizitza guzia.
Jatorriz ere beartsua ta
eskola gutxi ikasia,
bertsolaria ez egokia,
itz neurtzaille itxusia.

2

Neke ta bear artu ninduen
txikitxo ta gaztetati,
eskolarako astirikan ez,
lana egin bear beti.
Bertso batzuek igiñak dira
nolabait nire buruti,
Arantzazuko illerokua
danok artutzeagaiti.

3

Arantzazuko Andre Maria
danok biar degu agurtu,
bere rebista illerokua
euskaldun guziok artu,
Ama goxo au ondo maitatzen
sekula ez iñor aspertu,
au egin ezik ezingo gera
iñola zeruan sartu.

4

Nekazaritza lan gogorra da
lurrarekingo burruka,
bizitza onek aitona zarrok
oso aspertuak gauka,
egun guzia neke izerdiz,
askotan gaba galduta,
argatik daude gure almenak
osoro urrikalduta.

5

Lurraren aurka sekula ez du
munduan iñork garaitu,
Arroxko eta panparroi danak
berak menderatu ditu,
jakiñaren gain alperra dana
zertan geiago gogaitu
bere gaiñian gabiltzan danok
azpiratu bear gaitu.

6

Geure lan edo ofiziotan
danok ditugu aitzakiak
aspertzen gaitu bizimodua
lana eginda ateratziak,
ariñaguak dirala uste
besteren bizibidiak;
pazientziaz eraman zagun
danok bakoitzak beriak.

7

Artu dezagun ondo gogoan
Jesusen pazientzia
Kalbarioan iltzera arte
Zinzilik iltzez josia,
Berak bezela eraman zagun
danok gure gurutzia
galdua dala iñok badauka
bide erdian utzia.

8

Jaun zerukuak eman dit neri
merezi ainbat suerte
alegiñakin saiatzen ere
jarraitu det orain arte
poltsati arin, aragiz plak,
ezurretara bai fuerte,
pisu astuna bizkarrian det
irurogei ta amasei urte.

II

BASERRIA ETA KALEA

1

Baserritikan irtetzen dira
jan gauzarikan onenak:
arrautz, oillasko, gaztai, arkume,
kapoi ta txekor gizenak.
Kaletarreiri opa diegu
guk orrelako gauza onak,
kalean ala ikusten dira
tripotx aundiko gizonak.

2

Kale gizonak izaten dira
guri eta borobillak,
okotzak iru zapaldatan da
kokotean ere maillak;
gu nekazari gizarajuok
argalak eta zamillak,
bizkar-ezurren ortzetaraiño
ezkutaturik urdaillak.

3

Aurpegia du ispillu eta
mingaiña kanpai biotzak,
alperrik bere bizimodua
ukatuko du bakoitzak:
nekazari ta jornaleruok
atze-aurreak zorrotzak,
beste mutillok zapalda-maillaz
kokote eta okotzak.

4

Bizimodua ikusten degu
ainbesteraiño naastuta,
len beartsuak ziraden asko
ederki aberastuta,
inbusteriz ta gezur apainduz
besteri poltsak ustu ta
aizearekin puztuta.

5

Salerosliak dira munduko
beartsuen galgarriak,
trepetxu onak ditugu oiek
sendatzeko elbarriak;
beren eskuan prezioa ta
pisuak ta neurriak,
oien bitartez ondatzen gera
kale eta baserriak.

III

GIZONAREN BI ZORRAK

1

Bi zorren jabe gera gizonok
mundura gatozenean:
andra-bazkari ta merienda
bautizatu ta ondorian,
ta bigarrena eztai ederrak
ezkondutzen geranean.
Senide eta adiskideak
bilduta jan-edanean,
gizatasuna eskuratzen da
zor au ordaintzen danean.

2

Danok dakite kontu oriek
nola diraden izaten;
ez dakienik ez dago eta
ez noa berriz esaten.
Mutilzar batzuk bigarren zorra
sekula eztute pagatzen.
Ala ere besteen bodara joaten
eurak ez dira lotsatzen:
bigarren zorra ordaindu gabe
gizonera ez da alleatzen.

IV

NORTEAMERIKA ETA ERRUSIA

Norte-aldeko Amerika ori
ainbeste zan aberastu
mundu guztia nola eraendu (1)
samur oi zuan asmatu.
Emen Europan txakur gogor bat
nola zan gerrari agertu,
ari katia samur lotzeko
otsua zuten indartu.
Orain pakian bizi izatera
otsua ezin umillatu:
ortzak zabalik jarrita dago
danairi eltzeko gertu:
atzenerako gerra ematera
bearko dira beartu.
Obeko zuten otsuarekin
konfiantzarik ez artu.

(1) Eraendu=gobernatu. "Eraentzalle" itza aipatzen da Aita Uriartek Bonaparteri egindako eskutitzetan. Ikus 24 garren eskutitza.

V

MUTIL GAZTEEN ETORPIDEA

Gaztetan gaizki oitutakoa
sekula ezta ondo eziko,
mutikotatik mutil badabil
gizonera ezta iritxiko.
Pensa dezake etorri dala
mundura urte gutxiko.
Len artutako oitura txarrak
ezditu samur utziko.
Alkoolak iltzen ezdituanak
sartuko dira tisiko.
Gaitz orren jabe egindakoan
ezdira luzaro biziko;
gu lako aitona buru txuririk
aurki ezdira ikusiko.

VI

GAUZA BERAREN GAIÑEAN

Mutikotan mutil dana
ta gizon mutilletan,
gizonetan mutiko
oi da geienetan.

Au nunai ikusten da
gaurko egunetan.
Obe prakak kenduta
baleude gonetan:
galdua da mundua
bizibide onetan.

VII

NESKA GAZTEEN ETORPIDEA

Txorakeriak ondatzen ditu
neskatxa gazte bikaiñak;
sasoia berez etorri arte
soseguz bizi eziñak.
Neskatillatan artu nai die
neska eldueiri gaiñak.
Kolorezkuak jarriagatik
azkazal eta ezpaiñak,
irten baiño len galtzen baditu
matrailletan krabeliñak,
alperrik dira gero ondoren
egindako alegiñak.
Lendik maitale ziran lagunak
jasotzen die polaiñak:
uste baiño len zapaltzen ditu
neskazarren usaiñak.

VIII

BATAIO-ONDOKO ANDRE-BAZKARIA

Seme berri bat jaiotakoan
batiuak dira egiten:
ingurumaiko andre-talde bat
bazkaltzera dira biltzen:
ikusi gabe ezin siñistu
nola diraden ibiltzen.
Sabelak bero jarritakoan
itzak dira ugaritzen,
danak esaten jartzen dira
eta iñor ez aditzen:
ikusgarririk oberik danik
neri etzait iruditzen.

IX

TXERRI BATEN ILTZEA ARANTZAZUKO MENDIAN

I

Jose Arrola nere
illobaren etxera
neri deitu zidaten
txerri bat iltzera.
Tegitik larraiñera
zanian atera
danok izutu giñan
ikusita bera.

2

Ain zan ikaragarri
luze ta zabala
txerrikuma bat nola
azi leike ala!
Lau mutil ta neska bat
lagun nituala,
danok eraso giñon
bertan beriala.

3

Okotzetik burnia
sartu nionian
gure mutillok bizi
an ziran gaiñian;
alperrik saiatu zan
bere alegiñian:
bertan berialaxe
bota zuten maian.

4

Lepotik sartu nion
kutxillo zorrotza:
beriala bete zan
odolakin pertza.
Kutxilloaren puntak
jo zion biotza:
etzan izan luzia
aren eriotza.

5

Lastoz erreta gero
sartzeko gelara
bai ate estu ortan
kabitutzen bada:
trabes ezin igaro
iñundik iñora:
tarras eraman gendun
lau ankakin gora.

6

Ebaki nionian
tripa lokarriak
mardul agertu ziran
barruko jan gaiak.
Ain ziran ugariak
koipe barasaiak
laister estaldu ziran
inguruko maiak.

7

Etxeko andriak zion
zala gibel-aundi:
alakorik ez degu
ikusi oraindi.
Atera nionian,
pisuari jarri:
draska eraman zitun
sei kilo ta erdi.

8

Ikusgarriak ziran
bere belarriak:
ain ziran zabal lodi
ikaragarriak.
Ebaki nionian,
pisuan jarriak,
bakoitza iru ta erdi:
zazpi kilo biak.

9

Mardula zan atzetik
zinzilik zeukana,
Gipuzkuan isatsa
deitzen diotena.
Bizkain deitzen diote
atzeko laztana.
Pisatu genduan da
bost kilo buztana.

10

Zenbat pisatzen zuan
ikusi nai bera:
nekez altxatu zuten
pisuen gaiñera.
Pisuak ezin artu
iñundik iñora:
arroak ba zituan
ogeitikan gora.

11

Orduan esan nion
etxeko andriari:
Badaukazu etxian
jan gaia ugari,
orra etxe guztia
koipetan igari:
eman jan da edan lasai
neska mutillairi.

12

Joseri esan nion:
Aizak, illobia,
gaurko eguna artu
gogoangarria:
beste bat azten badek
aulako txerria,
gelara zabaldu zak
ate bat berria.

X

BASERRIKO ISPILLUA

1

Bizi nai badek labrantzan
ez adi ibilli dantzan:

itxu itxuan lana egin zak
geroko esperantzan
goizian goizik eskaratzan
eta gabean zintzo etzan
ire soruak janari onak
garbi eman dezan.

2

Garaitzeko, nekazari,
egin zak sitza ugari
kare ta zimaur estaltzeraiño
bota iok lurrari
ereiten sasoian ari
gutxinaz eman jorra bi
edo bestela baserritikan
kalera joan adi.

3

Ai, labradore alperrak
dira trepetxu okerrak,
latz eta zikin soluetako
erdi ta bazterrak,
beti labore kaxkarrak,
ugaritu belar txarrak.
Kalera kendu ola dabiltzan
baserritarrak.

4

Ai, gizon nekazaria
bada tabernakaria,
andrea ezpadu bera dan baiño
etxezain obia,
tabernan igaro jaia
astelen buru aundia,
goitikan beera beti jungo da
aren baserria.

5

Zapatuetan kalera,
andrea, juten bazera
dendalarien inbusteriak
egitzat artzera,
txotxeriak ekartzera,
zorrak eginda etxera,
ortatik dator etxe askotan
zorionen galera.

6

Aita amak ondo alkar artu,
biarrean ez aspertu,
ganadu eta oillo ta txarri
ondo gobernatu,
txanponak zaitzen saiatu,
kalera ez biziatu,
etxeko gauzak ondo zainduta
zintzo aprobetxatu.

7

Umiak zintzo zintzo azi,
gaztetatik onco ezi,
morroi neskame egoten ere
dezatela ikasi,
bide ona erakutsi,
fraille nai badute, utzi,
neskatxak moja nai badute ere,
ori ez eragotzi.

8

Baserrian zintzo bizi,
ez jun kalera igesi:
kale gorrian gauza guztiak
biar dira erosi,
txanpona beti igesi,
askotan zorra nagusi,
zulo guztiak estalitzeko
ezin irabazi.

9

Apainduri ta jantzia
nekazarien antzian,
ez aberatsen oiturak artu
pobrien etxian.
Txorakerin gastatzian,
or datoz zorrak atzian.
Galdua zera pisu aundiak
azpiratutzian.

10

Aitona zarren esanak
egiak dirade danak,
gazte txoruak sinistu nai ez:
ortan dirade lanak
arrokeriz dabiltzanak
umillatuko diranak.
Gaitz ori ezin erremeditu
gero damu izanak.

XI

"GOIZ-ARGI", BASERRITARREN PERIODIKUARI

1

Baserrirako ispillu on bat
jarri digute "Goiz-Argi",
ikasitzeko ondo ta samur
nola bizi nekazari.
Zorion asko ematen diet
onen egille danairi:
deitutzen diet au artutzeko
baserritar guztieri.

2

Larogeita iru urte baditut
nire gaztetati onera
lurgain onetan ikusi dira
makiñatxo bat goibera,
gazte giñala neke alperrak
ugari egiñak gera
orduan etzan iñor etortzen
nola bizi irakustera.

3

Garai artako baserri-tresnak
ziran laiak eta atxurrak,
laia utsakin aztertu bear
geure sorotako lurrak,
beti makurka, ondo ezita
mamiak eta ezurrak:
gaur gazte askok usteko dute
oiek dirala gezurrak.

4

Karobiak ere erretzen ziran
soruak ongarritzeko,
orduan etzan miñeral-autsik
iñundik ekarritzeko.
Nolabait lurrak berotu bear
bizigarriak artzeko.
Zenbat neke-lan egin bear zan
artoa zintzo jateko.

5

Aspaldi ontan baserri-tresna
bikaiñak dira agertu,
nekatu gabe samur oi dira
lurrak itzuli ta aztertu,
nai dan bezela maniatuta
azia ereiteko gertu.
Jaun asmatzaille jakintsu oiek
bear ginduzke agurtu.

6

Miñeral-autsak aukeran daude
nundiknai ekarritzeko,
soro ta zelai ongarrituta
emaitzak ugaritzeko,
ganaduentzat eta geuretzat
bizigarriak artzeko:
samurtasunak asmatu dira
baserrian bizitzeko.

7

Pentsu-janari onak ere bai
txekor galantak azteko,
baita ollueiri utsune gabe
arrautzak jarri erazteko.
Baserri danok artu "Goiz-Argi",
gai guziak ikasteko,
alper-nekerik egin gaberik
txanponak irabazteko.

XII

ARDIAK ETA PIÑUAK

1

Ganadu guztiz bearrekoak
ditugu emen ardiak:
oiek dakarte ille, aragi,
arkuma, esne ta gaztaiak:
piñu-jabeak jarri zaizkigu
ganadu onen etsaiak:
orien botoz eztakit nora
bearko degun artzaiak.

2

Toki danetan dira batzuek
lurralde askoren jabe:
gaiñerakuok ardi ta abar
nolabait bizi gerade:
piñu-landara jartzen digute
itxiturarikan gabe:
guri ardiak nola kenduko
gogor saiatzen dirade.

3

Agintariak artu ezian
errukia artzaiairi,
gure menditan jarri ezkero
Kastillako lege ori,
Euskalerritan faltako dira
makiña bat bizigarri:
goierri oitan jarriko gera
bizi ezinda ugari.

4

Begira emen bizimodua
zein ezberdiña daukagun:
beartsuontzat eragozpenak
nola sortutzen zaizkigun,
Arantzazuko Andre Maria,
zuk egin zaiguzu lagun:
aundi ta txiki guztiok alkar
ondo maitatu dezagun.

5

Ni bertsolari itxusia naiz,
obiak badira ugari,
Arantzazuko aitona onek
deitutzen die danoiri
zuen erritan etxe danetan
artu erazi "Goiz-Argi":
bertsotan eman zorion asko
onen egille danairi.

XIII

GIPUZKOARRAK TXAPELA GALDU

Jatorritikan bizkorrak dira
mutil gipuzkoatarrak,
pelotari ta aizkolariak
indartsu eta azkarrak.
Pelotariai beren txapela
kendu die arabarrak;
aizkolariak igarri gabe
zapaldu ditu naparrak,
bizi-lagunak eingo digute
orain burla eta parrak:
goitik begira negarrez daude
lengo jokalari zarrak.
Txapel oriek atzera ekartzen
saiatu, mutil azkarrak!

XIV

PRAKAK ONDO ZAINDU

Gizonak bere frakak
ondo zaindu ezian,
aren gizatasuna
jausten da utsian.
Andreak agintea
badauka etxian
eta gizonen frakak

jantzi gorputzian,
gizona gelditzen da
arkondara utsian.
Andrien mende bear
bizitza guztian.

XV
ARANTZAZUKO TORREARI

1

Kristau guziok pozaren pozez
etorri Arantzazura,
konfesonariuan kentzera
kontzientziko ardura.
Jauna artu ta igo ezkero
torre luzien burura,
salto txiki bat bakarra dago
andikan gora zerura.

2

Torretxo oni tatxa billatzen
bakar batzuek ba-dira.
Obe lukete ori esaten
saiatuko ezbalira.
Au zertarako egiña dagon
esango diet segida:
siñisgabeak jarri ditezen
zeru aldera begira.

XVI

ZARTZAROKO AJEAK

Gizon nekazaria
laister oi da zaartu,
tankera itxusia
gorputzak artu,
besoak biurritu,
belaunak okertu,
sudurra dindirritu,
pausoa baldartu,
bizkarra gaillurtu,
burua makurtu,
mosua kuskurtu,
bistia laburtu,
belarriak gortu,
agoa biurtu,
zentzuna agortu,
adimena lotu,
kaskarra lelotu,
okotza kakotu,
samia igartu,
azala zimurtu,
koipakiak urtu,
ezurrak agertu,
otzakin bildurtu,
eskuak gogortu,
beroak izertu,

biguna elkortu,
gogorra nanotu,
aizia samurtu,
oituraz zabartu,
laguntza beartu,
bizitzen aspertu:
goiti deitutakoan
joateko gertu.

XVII

ETXE ASKOTAN GERTATZEN DANA

Aita ta ama ipiski (1),
seme-alabak aundizki,
gaurko egunian etxe askotan
gertatzen da noski.
Gazteen poltsak irazki,
gurasoak matarraski (2),
zarzaro ona igarotzeko
ori bai da gaizki.

---

(1) "Ipiskixa da labeko brasak bazterrera ekartzeko aga baten puntan lotuta jartzen dan erropa zarrezko moltsua."

(2) "Matarraski da oramaian gelditzen diran ora-ondarrak biltzeko belakitxo bat. Gazteen poltsak zela diran irazki, aita ta amak etxeko zorrak pagatzeko diru-ondarrak zintzo batu bear. Ori da matarraski".

XVIII

KALETARREI DEIA

1

Zortzi erritako aitona batzuk
egiña degu billera,
larogei urte ingurukoak
danok gutxi gorabera.
Jaiotzetikan nekazaritzan
baserritan bizi gera.
Oraintxe gatoz kaletarroiri
Dei gozo bat egitera.

2

Zuen aldetik izan ditugu
makiñatxo bat aitzaki
baserritara diru guziak
guk dakargula kaletik.
Bizigarriak samur artuta,
kalera saldu garesti,
illetaraiño beteta gaude
ori aditutzen beti.

3

Kalera eramaten ditugula
arrautza erdi lokatuak,
nolabaiteko jangaiak, eta
esneak bataiatuak.
Danak ez dute ori esaten,
batzuk dira orrelakuak.
Ugarituaz, konfesatu nai
baserriko pekatuak.

4

Baserri asko nola diraden
aspaldi onetan ustu,
kalean kejaz zeraten danok
oraintxe zaitezte poztu.
Diru guziak guri emanda
or bizi gabe ain estu,
atozte danok baserritara
nai badezute aberastu.

5

Oilloak zoli joko dizute
egunsentiko diana,
eguerdirako jarri ere bai
arrautza txuri eder bana,
zirri ta zarra beia jaitzita
esne ona nai dan dana,
nai dan bezela kalera saldu
etxean bear ez dana.

6

Bere garaian etortzen dira
arkumak eta gaztaiak,
arrautz, oillasko, beste gai asko,
sortzen ditu baserriak.
Bear diranak etxerako ta
kalera saldu besteak,
urte buruan eskuratzeko
al diran diru guztiak.

7

Keixa, okaran, udare, sagar
arbolatik datozenak
kalean batzuk esaten dute
dirala intzak dakarrenak.
Oriek ere saldutzen dira
etxean janaz onenak.
Danak dirutan erosi bear
arbolarik ez duenak.

8

Baba gorri ta patata eta
diran janari onenak
baserritara ala oi ditu
ekarri uda-atzenak.
Intxaurrak eta gaztaiñak ere
intzetikan datozenak
esaten dute oiek dirala
danak berez datozenak.

9

Nai dutenean kortatik artu
txekor bat sokian lotuta,
tipi ta tapa, kalera lasai,
arakiñari salduta,
ta arakiñak kalean diran
diru guziak bilduta,
baserrikoa bialtzen dute
patrikadak berotuta.

10

Gabon-aldian txerria ilda
odolki eta lukainka,
sukalde-jira an egoten da
usai gozoz zintzilika.
Urdai-azpiak onduta gero
kakotatik esegita,
urte guziko gozagarriak
etxean ondo jarrita.

11

Gabon zarrean kajoia edo
kutxatilla atera,
urteko zorrak pagatu eta
zenbat dagon kontatzera.
Urte berria nola datorren
berriz ere ematera,
lengo trabia nora kenduko
artu ta Kaja Ahorrosera.

12

Nekazariak bereak ditu
ondasun oriek danak.
Baserritara etorri lasai
kalez aspertu diranak
uste badute oiek dirala
lurrak ain samur emanak.
Probatu arte ez gogoratu
baserriko neke-lanak.

XIX

GEZURRAK

Itxasoan dabiltza
landarak aldatzen
eta mankuak dabiltz
dantzan ta jolasen,
itsuak dabiltz berriz
mendiak ikusten,
mutua etorri zaigu
mitiñak egiten,
eta gorrak dabiltza parrez
sermoiak aditzen,
nai duanak ikusi
oik nola dabiltzen
danok jarri zaitezte
egiak aditzen,
gezurrak diranikan
etzait iruditzen.

XX

EZBEAR ASKOREN SUSTRAIA

Jatordu baten janari klase
asko badirade jaten,
urdabillara sartutakoan
ez dira ondo alkartzen.
Danak burrukan asiten dira
toki onena arrapatzen.
Jun bear duten lekura gero
biderik eztute billatzen,
enpatxu edo ezbiar asko
ortatik dirade sortzen,
eriotza ere bear baiño len
askori zaie etortzen.

XXI

GAURKO MUNDUAREN ETORPIDEA

Egi mardul bat iñok
nai badu aditu
ze aizek bear duan
munduan garaitu
diru samurrak ditu
gazteok gaizki oitu,
lujo ta bizioak
azpiratu ditu,
tontoak gutxitu,

jakintsuak geitu,
zintzoak nagitu,
alperrak ugaritu:
aurki munduan ezin
naieran kabitu.

XXII
FRAISKU MUTILZARRARENAK

1

Mutilzar arroski bat
Fraisku zeritzana
anaiaren etxian
lasai bizi zana
fumatzaille itsua,
txurrutlari ona,
aiek eman zioten
alako atzena.

2

Beti esaten zuan:
Bi ok ditut maite,
nik ez diet utziko
naiz da egin kalte..
Ezin bizi nindeke
oiengandik aparte:
nerekin bear ditut
bizi naizen arte..

3

Sarritan egoten zan
tabernan sartuta,
bere etsai bi oiek
adiskide artuta
aiekin zegonian
oso txoratuta,
bere adimena ere
askotan galduta.

4

Bere atsegin dana
edan da fumatu,
noiz eta nola utzi
ezin zun asmatu;
batek busti orduko
bestiak liortu,
sekula ezin zien
neurririkan artu.

5

Tabernatik etxera
ala gau batian
ain zijoan berandu
bidia betian
mozkorra soiñian da
pipa ere ortzian:
anaia zai zegoan
kezkatzen etxian.

6

Bere oia an zeukan
kuartotxo batian
nola zan mutilzarra
toki apartian.
Anaiak eldu zion
besotik atarian
bere pipa ta guzti
sartu zuan oian.

7

Nola etzan konturatu
orduan anaia
pipa egongo zanik
itzali gabea,
Fraisku ori nola zan
oso berekoia
etzuan kentzia nai
ortzetik etsaia.

8

Anaiak alde eginda
lo jarri zanean,
etzan luzaro egon
pipa ezpaiñean.
Nola zeukan bizirik
sua barrenian,
txispak zabaldu ziran
maindire gaiñian.

9

Maindirea erretzen
bazijoan sua
berotzeko asmotan
gero eskaillua (1);
nola dan ain gogorra
mozkorraren lua
kezkarik gabe zegon
mutilzar lelua.

10

Su ori lastaiara
iritxi zanian,
len baiño bizkorrago
asi zan lanian;
aisa zabaldu zan bai
oiaren gaiñian,
mutilzarra soseguz
lo zeguanian.

11

Fraisku ori jarri zan
biziro berotzen,
baiña ala ta ere
etzan ba esnatzen.
Asi zitzaionean
larrua erretzen
lozorroan asi zan
orroi batzuk jotzen.

(1) Mutilzarrari esaten zaio.

12

Ain ziraden gogorrak
atzen garraziak,
sustora esnatu ziran
etxeko guziak.
Uetik salto egiñaz
esan zun anaiak:
Oraintxe pagatzen du
Fraiskuren biziak.

13

Salto batian jun zan
al zuan azkarren
sua besterik etzan
dana, gain da barren.
Diadar egin zuan:
Zer pasatzen da emen?
Gorputza inpernuan
anima baiño len.

14

Diadar egin zion
andriari bertati:
Atoz onera bizkor
Jaungoikoagati,
Paternoster luze bat
esaizu gogoti,
ia ateratzen degun
Purgatorioti.

15

Alderdi danetati
tetxuraiño sua,
erdiko potiñian
erreten sargua (1),
irakiten zeguan
Fraiskuren barrua:
etzan otza egongo
an zeukan ardua.

16

Famili artan bazan
espa ta negarra,
aura zan iskanbílla
ta galdu biarra.
Koiñatak esan zuan
ala erdi farra:
Akabo Jaunak ointxe
gure mutilzarra.

17

Fumatzaille bazera
bear dezu jakin,
maiz gogoratu zaite
Fraisku gaixoakin.
Adiskide bazera
bi etsai oiekin
aurki izan litezke
zeuretzat errekin.

(1) Mutilzarrari esaten zaio.

18

Kontseju onak artzen
iñor ez aspertu,
aitonari aditzeko
danok egon gertu,
Fraiskuren ondamena
ara emen agertu:
adiskide faltsorik
laguntzat ez artu.

XXIII

ATSEGIÑA TA ATSEKABEA

1

Atsegiña ta atsekabea
dabiltz alkarren atzian,
ixil ixillik jarraitzen dira
goiberan ta aldatzian.
Atseginaldi dezun garaian
bazabiltz txoro-antzian,
uste baiño len izango dezu
naigaberen bat etxian.

2

Jaungoikoari eskerrak eman
atseginez zaudenian,
seguru egon beste mutilla
or dala ondorenian;
gau eta egun beti prest egon
al dan modu onenian
naigabiari erasotzeko
etxera datorrenian.

3

Gastatzaillia baldin bazera,
beti bazabiltz gastatzen,
gazte garaian zarzarorako
ezbadezu begiratzen,
premi orduan besteren gauzak
gaitzak dira eskuratzen;
egun illunak izango ituzu
atzen urtiak pasatzen.

4

Diru biltzailla baldin bazera,
beti biltzen ibilli ta,
gero ondoren zer datorkizun
egon zindezke etsita.

Alper alperrik poztuko **zera**
pilla aundia ikusita:
txanponik gabe jun biar **dezu**
danak besteentzat utzita.

5

Kaltegillia baldin **bazera**
gero zuk kalte egiñak
begi txarrakin zu ikusita,
estutuko ditue agiñak,
beste munduan emango **dizu**
gero tripetako miñak,
galduta gero damutuarren
erremeditu eziñak.

6

Mesedegille baldin **bazera,**
zuk on egindako danak
ago betian jarriko **dizute**
ongille fiñaren famak.
Zu ildakuan miñez **erreguz**
geldituko dira danak,
eta zerura jasoko zaitu
zu Arantzazuko Amak.

XXIV

OÑATIKO ERRIARI

Aingeru Mikel Zaindari degu
Gure Oñati txokuan
Lendabiziko zeruko gerra
Berak irabazi zuan;
Deabru txarra oin azpian da
Ezpata zorrotza eskuan,
Bildurrik gabe bizi gera gu
Emen beraren onduan.

Goyetan-gora jaso dezagun
Gure Oñati maitia,
Inguru-mai guzia dauka
Baserri txuriz betia;
Kalian dauden jauregi ederrak
Atsegin da ikustia,
Beste erri bat onen apaña
Gaitza da billatutzia.

Goratu zagun Alkate Jauna
Eta Ayuntamentua
Gure premitan lagundutzeko
Oyek daukate kontua;
Animen gaitzak sendatzeko ere
Badegu nork lagundua,
Agurtu zagun Parroko Jauna
Eta bere Kabildua.

San Agustin'en seme zintzoak
Ortxe daukagu jarriak
Ikusten danez gure errian
Askoren maitagarriak,
Nola diraden ongille onak
Danok gaude igarriak
Seme-on asko ematen die
Gure Oñatiko erriak.

Aloña ondoan ortxe daukagu
San Prantzisko'ren semiak
Bizkorrak dira azkar sendatzen
Gure animen premiak,
Erromesairi zintzo egiñaz
Beren ongi etorriak,
Jantzi latzezko soñekoa ta
Oñak galtzerdi gabiak.

Ezker eskubi emen daukagu
Konbentu agurgarriak,
Biotz-oneko emakumiak
Or daude preso jarriak;
Monja oyeiri esker sutsuak
Zor die euskalerriak
Oyen erreguz biguntzen dira
Jaungoikuen aserriak.

Begira ondo biotz biguñez
Guziok Arantzazura
Danen gañeti Zaindari degu
Zeruko Ama maite ura,
Gure pausuak nola dabiltzen
Dauka benetako ardura
Danok nai gaitu bere eskuti
Eramatia Zerura.

Jesus'ek berak bialdu zigun
Bere Ama bitarteko
Danok berari otoitz egiñaz
Geure Amatzat artzeko;
Biar ditugun on-bide danak
Zerutikan ekartzeko
Aita aserre jartzen danian
Berak adiskidetzeko.

Gure erriko agintariak
Beti izan dira onak,
Zintzo ta zuzen ondo betetzen
Nor-beren eginkizunak;
Begiratuta ezagun dute
Orain dijoazen lanak
Zein maite duan gure Oñati
Reyes Korkostegi Jaunak.

San Migel eta Andre Maria
Nola geurekin daukagun
Orien bidez zorion asko
Nola iristen ditugun,
Zaindari onak daukan erria
Munduan beti ezagun,
Gau eta egun otoitz egiñaz
Danok agurtu ditzagun.

Eibar-en asi Plazentziati
Bergara ta Antzuola
Mondragon saka Gatzagan jaiki
Bota kiputzera bola,
Zegamatikan Itxasoraño
Ondasunak dariola,
Guk biotzeti maite deguna
GEU JAYO GIÑAN KAYOLA.

Lur gain onetan bizitza
Biziro da pozgarria,
Gure errian ez da agortzen
Maitasunezko iturria;
Ez iñork uste gure esana
Danikan arrokeria,
Gure erara maitatu denok
BAKOITZAK BERE ERRIA.

OÑATI'KO Oñatitarrak

Jesukristori



Jesukristoren Pasioko bertso famatuak doiñu onekintxe kantatzen ditu Grazianok.

Kontxe, sardiñak!



Kontxe, sardiñak dantza, bere doiñuarekin



Txakolin-dantzaren doiñua, Grazianok dakian bezela